


# Euskarazko IKTak

GOMENDIOAK HERRI-AGINTEENTZAT



**Euskararen Aholku Batzordea**  
**Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza**

**EUSKO JAURLARITZA**




**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

# Euskarazko IKTak

GOMENDIOAK HERRI-AGINTEENTZAT



**EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**  
**HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETTZA**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2016

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>>.

Argitaraldia: 1.a, 2016ko iraila

Ale-kopurua: 1.500 ale

Internet: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastian, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Azala eta maketazioa: Concetta Probanza

Inprimatzailea:

ISBN: 978-84-457-3409-4

Legezko Gordailua: VI x723-2016



Lan hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa Baimen baten mende dago. Iturriaren aipamena horrela egingo da: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila (Eusko Jaurlaritzza)

# AURKIBIDEA



Euskararen Aholku Batzordearen Osokoa	7
Euskararen Aholku Batzordearen IKT Batzorde-atal Berezia	9

## **HITZAURREA: EUSKARAZKO IKTak GARATZEKO IBILBIDE ORRIA**

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO Hizkuntza Politikarako sailburuordea	11
---	----

## **EUSKARAZKO IKTak: GOMENDIOAK HERRI-AGINTEENTZAT**

<b>1. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA</b>	<b>17</b>
<b>2. IKT BATZORDE-ATALA</b>	<b>19</b>
<b>3. ALORKAKO LEHENTASUN-HURRENKERA</b>	<b>23</b>
<b>4. LEHENTASUN HANDIENeko GOMENDIOAK</b>	<b>25</b>
<b>5. LEHENTASUN HANDIENeko GOMENDIOEN AZALPEN LABURRA</b>	<b>27</b>
<b>6. LEHENTASUN, EGINGARRITASUN ETA ERAGINKORTASUNAREN BAITAKO SAILKAPENA</b>	<b>61</b>

## **ERANSKINA:**

Lanerako abiapuntuko dokumuntua	67
Txostenean erabilitako irudiak	77



## EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN OSOKOA

### ERAKUNDEETAKO ORDEZKARIAK:

**Lehendakaria:** Iñigo Urkullu  
Renteria, Eusko Jaurlaritzako  
Lehendakaria

**Lehendakariordea:** Cristina  
Uriarte Toledo, Hezkuntza,  
Hizkuntza Politika eta Kulturako  
sailburua

Patxi Baztarrrika Galparsoro,  
Hizkuntza Politikarako  
sailburuordea

Joseba Erkizia Itoitz, HABEko  
zuzendari nagusia

Arantza Aurrekoetxea Bilbao,  
Hezkuntza sailburuordea

Maite Iruretagoiena Iburguren,  
IVAPEko zuzendari nagusia

Ane Urkiola Alustiza, Ogasun  
eta Finantza Saileko Zerbitzu  
zuzendaria

Odile Kruzeta Olañeta, EITB  
Irratiaren zuzendaria

Igone Martínez de Luna Unanue,  
AFAko Euskara, Kultura eta Kirol  
Saileko diputatua

Ana de Castro Rubalcaba, BFAko  
Euskara Sustatzeko zuzendari  
nagusia

Mikel Irizar Intxausti, GFAko  
Hizkuntza Berdintasunerako  
zuzendari nagusia

Mikel Pagola Tolosa, Euskal  
Udalen Elkarteko ordezkaria

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua,  
Euskaltzaindikoko ordezkaria

EABren idazkaria: Jorge Giménez  
Bech, Hizkuntza Ikerketa eta  
Koordinaziorako zuzendaria



### ADITUAK:

Kike Amonarriz Gorria	Pilar Kaltzada Gonzalez
Itsaso Andueza Fernandez	Elena Laka Muñoz
Iban Arantzabal Arrieta	Miren Elixabete Larrinaga
Joseba Arruti Lafuente	Artetxe
Lourdes Auzmendi Aierbe	Joseba Lozano Santos
Martin Auzmendi Aierbe	François Maitia
Miren Azkarate Villar	Koldo Martinez
Francisco Javier Azpiazu Lasuen	Urionabarrenetxea
Mikel Belasko Ortega	Iñaki Martinez de Luna Perez de Arribas
Maren Belastegi Guridi	Mertxe Mugika Balanzategi
Garbiñe Biurrun Mancisidor	Joxean Muñoz Otaegi
Allande Boutin	Eneko Oregi Goñi
Jasone Cenoz Iragi	Xabier Paya Ruiz
Maite Etxaniz Balentziaga	Carlos Ruiz Gonzalez
J. Iñaki Etxezarreta Alberdi	Pello Salaburu Etxeberria
Ramon Etxezarreta Aizpuru	Jon Sarasua Maritxalar
Aizpea Goenaga Mendiola	Pablo Suberbiola Unanue
Maite Goñi Eizmendi	Kirmen Uribe Urbieta
Jokin Gorozika Bidaurrezaga	Miriam Urkia Gonzalez
Itziar Idiazabal Gorrotxategi	Vanessa Vélez De Pablos
Jone Miren Hernandez Garcia	Xarles Videgain

### EUSKO LEGEBILTZARRAREN PROPOSAMENEZ IZENDATUAK:

Lorea Bilbao Ibarra	Garbiñe Mendizabal Mendizabal
Paul Bilbao Sarria	Xabier Olabarrieta Arnaiz



## **EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN IKT BATZORDE-ATAL BEREZIA**

Patxi Baztarrika Galparsoro,  
Batzorde-atal Bereziko  
presidentea

Maite Goñi Eizmendi, Batzorde-  
atal Bereziko zuzendaria

Juan Alberto Alonso Martín

Iban Arantzabal Arrieta

Lander Arbelaitz Mitxelena

Xabier Arrieta Goñi

Joseba Arruti Lafuente

Mikel Belasko Ortega

Javier Etxebeste Otegi

Luistxo Fernandez Ostolaza

Gorka Julio Hurtado

Pilar Kaltzada Gonzalez

Odile Kruzeta Olañeta

Elena Laka Muñoz

Igor Leturia Azkarate

Montse Maritxalar Anglada

Eneko Oregi Goñi

Xabier Paya Ruiz

Miriam Urkia Gonzalez

Vanessa Vélez de Pablos

Xarles Videgain

Jorge Giménez Bech, Batzorde-  
atal Bereziko idazkaria







HITZAURREA

# EUSKARAZKO IKTak GARATZEKO IBILBIDE ORRIA

PATXI BAZTARRIKA GALPARSORO

*Hizkuntza Politikarako sailburuordea*

Gaur egun, IKTak eta horien erabilera ez dira aukerako kontuak. Edo hor zaude, edo galdua zara.

Konbentzimendu horretatik abiatuta, Eusko Jaurlaritzak, Euskararen Agenda Estrategikoan —hau da, legealdi honetarako onartu zuen eta garatzen ari den hizkuntza plangintzako Ibilbide Orrian—, 13 lan-eremuetako bat eskaini zien, oso-osorik, IKTei, eta eremu horretan 20 ekintza jasotzen dira (Agendak, guztira, 168 ekintza biltzen ditu «euskara, bizikidetzarako hizkuntza bizia» lelopean).

Praktikak argiro erakusten digu: bizirauten duten hizkuntzak dira hiztunak dituztenak, irakasten direnak, belaunez belaun transmititzen direnak, ikasteko, gozatzeko eta dibertitzeko erabiltzen direnak, garaian garaiko herritarren premia komunikatiboetara egokitzeko gai direnak. Hala irau du euskarak, eta orain ere horixe dagokio euskarari: hiztunen premia komunikatiboetara egokitzen jarraitzea. Premia horietako batzuk berriak dira.«Herritarra eta hiztuna non, euskara han»: hala behar du, hizkuntza bizia izango bada. Egokitzeko bidean, gaur egun nahitaez kontuan hartu behar dira IKTak. Gero eta jende gehiago,



gero eta neurri handiagoan «bizi da» Interneten. Ezin dugu ahantzi, oso bereziki gazteen hizkuntza-erabilerak gaur egun neurri handi batean IKTetan gauzatzen direla, eta uste izatekoa da hala izango dela etorkizunean ere. Herritar askoren eta gazte gehienen bizileku da Internet.

Teknologia berrien ez tandak, beste hainbat faktoreren eraginarekin batera, erabat aldatu digu gure gizartearen argazki linguistikoa azken urteetan. Argazki hori, ordea, ez da hainbatek aurreikusten zuen bezain ezkorra: hizkuntza nagusituen hegemonia irudikatu izan du zenbaitek, hizkuntza gutxituen kaltetan. Begien bistakoak dira globalizazioaren uniformizazio mehatxua eta, ondorioz, hizkuntza aniztasunaren garapenerako eragozpen larriak. Hori hala da. Baina, horien ondoan, azken urteetan, bestelako errealitate bat erakusten ari da Internet, errealitate eleaniztunago bat, hain zuzen ere. Euskara bezalako hizkuntza gutxituen sustapenerako aukera eraginkorra ere bada Internet. Euskararentzako aterpe eta erabilera-eremu da Internet, eta sendotu litekeen eremua da, zergatik ez.

Aukera eraginkorra izango dugu, baldin eta gauzak tentuz, zuhurtasunez, garaiz eta ondo egiten baditugu. Gehiagotan ere esana dugu: datozen bizpahiru belaunalditara begira, euskararen garapen iraunkorra dugu helburu, eta euskararen bizi-indarra dugu erronka nagusia. Euskararen bizi-indarra sare sozialetan eta Interneten bakarrik bermatzen dela uste izatea bezain okerreko ustea da, uste erratua, uste izatea euskararen bizi-indarra neurtzea posible dela euskararen bizi-indar digitala kontuan izan gabe.

Abiapuntu onean gaude. Euskararen osasun digitala ona dela esan behar da. Ona da, euskarazko komunitate digital dinamiko, bizi eta konprometitu baten lanari esker, eta herri-aginteen konpromisoari, sustapenari eta laguntza ekonomikoari esker. Guztien ahaleginak ekarri gaitu honaino. Nahikoa da datu batzuei erreparatzea:



- ▶ Munduan badira ia 7.000 hizkuntza, UNESCOren datuen arabera. Munduko hizkuntzen %5 besterik ez da erabiltzen Interneten, eta horietako bat euskara da.
- ▶ Twitterreko lehenengo 33 hizkuntzen artean dago euskara.
- ▶ Wikipedia 292 hizkuntzatan dago, eta horietako bat euskara da. Euskarazko Wikipedian 245.000tik gora artikulua daude egun, eta artikulua-kopuruari esker 31. postuan dago, Europar Batasunean ofizialak diren hainbat Estatu hizkuntzaren gainetik eta bere hiztun kopuruari legokiokeen posizio erlatiboaren oso gainetik.
- ▶ Facebook, Google eta beste sare sozial zein web zerbitzu ezagunetako asko euskaraz erabiltzeko aukera dago.
- ▶ Euskaraz idatzi, nabigatu, komunikatu, jolastu eta lan egiteko tresna ugari ditugu.

Argi mintzatzen dira, beraz, datuak: «txikiaren handitasunaren» adierazle garbia da euskarak gaur egun IKTetan duen garapena. Munduko beste hizkuntzekin alderatuta, euskarak IKTetan duen garapena aurreratua da, beste hizkuntzen eta gurearen hiztun kopurua eta estatusa kontuan hartzen baditugu. Munduko hizkuntzen pelotoian, IKTetako karreran, euskara ez dago atzealdean, alderantziz baizik; baina atzerantz geratzeko arriskua hor dago. Ez dago berez bermatuta gauden lekuari eustea edo posizio aurreratuagoak irabaztea, eta ezinbestekoa da euskara teknologia berrietan integratzen jarraitzeko ahalegin bateratuak egiten segitzea. Eta ezinbestekoa da, era berean, ibilbide orri egokia eta egingarria izatea, lehentasunak garbi izatea. Baliabideak mugatuak dira, beti dira mugatuak: nahitaezkoa dugu asmatzea zer den lehentasunezkoa.

Horretarako eratu genuen 2014ko abenduan, hain zuzen ere, Euskararen Aholku Batzordea berriro genuenean, IKTen Batzorde-



atal Berezia. Maite Goñi izendatu genuen zuzendari, eta arloan aditu diren hainbat pertsona, batzordekide. Eginkizun zehatz bat jarri genion batzordeari: IKTetan eta Interneten euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko herri-aginteei gomendio zehatzak egitea, eta lehentasunak identifikatzea.


Horixe da IKTen Batzorde-atal Bereziak egin duena, eta Euskararen Aholku Batzordeak maiatzaren 11ko Osoko Bilkuran onartu duena: «Euskarazko IKTen Garapenerako Gomendioen Karta», Ibilbide Orritzat har dezakeguna. Elkarlanean eta elkarlanerako egina da, beraz, argitalpen honek jasotzen duen dokumentua, eta azpimarratzekoa da, prozesuan izan den partaidetza zabalez gain, jasotzen diren irizpideen sendotasuna, Euskararen Aholku Batzordeko kide batek dokumentua onartzean esandakoak ezin hobekiago islatzen duena: «antzematen da dokumentu hau lantzen aritu direnak benetan direla oso goi mailako adituak».

Zoriondu nahi ditut, sarrera hau amaitzeko, bai Euskararen Aholku Batzordeko Osokoaren kideak, bai dokumentuaren lanketa bere gain hartu duten IKT Batzorde-ataleko kideak, Maite Goñi zuzendaria buru eta dinamizatzaile prestu dutela, eta zoriontzearekin batera, nola ez, beren lana eskertu ere egin nahi diet.

Lanabes paregabea da Gomendioen Karta edo Ibilbide Orri hau herri-aginteentzat, bakoitzaren eskumen-esparruan euskarazko IKTak bultzatzen jarraitzeko, betiere guztiak sintonia edo ibilbide berean, eta herri-aginteentzat ez ezik, erreferentzia funtsezkoa da, halaber, IKTen garapenari lotutako jardunean diharduten askotariko elkarte eta enpresentzat.

# Euskarazko IKTak

GOMENDIOAK HERRI-AGINTEENTZAT







## AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Hainbat alorretan ematen ari den globalizazioa, hiztun kopuru handia duten hizkuntzen eragina, komunikabideen orokortzea eta, batez ere, teknologia berrien ezta argazki linguistiko berri bat ekarri digute azken urteetan. Argazki hori, ordea, ez da hainbatek aurreikusten zuen bezain ezkorra: hizkuntza nagusituen hegemonia, hizkuntza gutxituen kaltetan. Azken urteetan, bestelako errealitate bat erakusten ari da Internet, eleaniztasun handiagoa duen errealitate bat. Aldaketa honek Internetek hizkuntza gutxituen sustapenean zenbaterainoko onura ekar dezakeen galdetzeraz garrantzitsua.

Hizkuntza hegemonikoen mehatxua ahaztu gabe, Teknologia Berriek munduko hizkuntza gutxituengan duten eraginari buruzko ikerketa ezberdinen emaitzek baikortasunerako bidea zabaltzen dute; izan ere, gero eta agerikoagoa da teknologia berriak erabiltzeko aukera duten komunitateetan, hauek toki garrantzitsua hartu dutela hizkuntza biziberritze programetan. Horien adibide garbia dira galesa, irlandesa, sardiniera eta okzitania, besteak beste<sup>1</sup>.

- 
1. PARICIO MARTÍN, Santiago Jorge; MARTÍNEZ CORTÉS, Juan Pablo. New ways to revitalise minority languages: The repercussions of the Internet in the case of Aragonese. *Digithum*, may. 2010. ISSN 1575-2275. Available at: <<http://digithum.uoc.edu/index.php/digithum/article/view/n12-paricio-martinez>>. Date accessed: 16 Apr. 2016. doi:<http://dx.doi.org/10.7238/d.voi12.799>.



Edozein modutara, emaitza positiboak lortze aldera, baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Alde batetik, hizkuntzaren sustapenerako lan egiten duen komunitatea behar da eta, bestetik, Administrazioaren babesa eta laguntza. Hau da, baterako ahaleginei esker lortu ahal izango dira emaitza positiboak.

Gurera ekarriz, maiz entzun dugun legez, euskararen osasun digitala ona dela nabarmendu behar da. Hona hemen hainbat datu hori erakusten dutenak:

- ▶ Munduko hizkuntzen % 5a besterik ez da erabiltzen Interneten, eta horietako bat euskara da.
- ▶ Twitterreko lehenengo 33 hizkuntzen artean dago euskara.
- ▶ Wikipedia 292 hizkuntzatan dago, eta horietako bat euskara da. Euskarazko Wikipedian 245.841 artikulutik gora daude egun, eta 31. postuan dago, Europar Batasunean ofizialak diren hainbat estatu hizkuntzaren gainera.
- ▶ Facebook, Google eta beste sare sozial zein web zerbitzu ezagunetako asko (Firefox nabigatzailea, Wordpress plataforma, Moodle LMSa...) euskaraz erabiltzeko aukera dago.
- ▶ Euskaraz idatzi, nabigatu, komunikatu, jolastu eta lan egiteko aukera dugu; izan ere, horiek denak egiteko aukera eskaintzen dute euskarara itzuli edota lokalizatutako tresnek.

Agerikoa da, beraz, aurrerapauso handiak eta nabarmenak egin dituela euskarak azken urteetan Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) alorrean eta Interneteko esparruan; hala ere, ezin da ahaztu, aurrerantzean hizkuntza bizia izango bada, euskara teknologia berrietan integratzen jarraitzeko ahalegin bateratuak egiten segitzea ezinbestekoa dela.





# 2

## IKT BATZORDE-ATALA

2014ko abenduaren 1ean Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak egindako bilkuran EABren osaera, funtzionamendua eta lan-programa aztertu ziren. Horrela, 2015/2016 aldian lanean jardungo zuten batzordeak eta haien eginkizun nagusiak zehaztu ziren. IKT Batzorde-atal Bereziari dagokionez, besteak beste, honako eginkizun hauek aurreikusi ziren bilkura hartan:

- ▶ Euskarazko IKTen gaineko datuen bilketa sistematizatua antolatzeko irizpideak finkatzea.
- ▶ Interneten euskarazko edukiak areagotzeko ekimenak eta lehentasunak zehaztea.
- ▶ Euskarazko tresna teknologikoak sortu eta sustatzeko lehentasunak finkatzea.
- ▶ Euskarazko IKTen ikusgarritasuna zabaltzeko bideak definitzea.
- ▶ IKTetan euskara garatzera zuzendutako diru-laguntzen deialdia hobetzeko proposamenak aztertzea.

Testuinguru honetan kokatu behar da Euskararen Aholku batzordearen **IKT Batzorde-atalaren helburu nagusia: IKTetan eta Interneten euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko herri-aginteei gomendioak egitea**. Hau da, euskara eta IKT edo Internet eremuetan erabakiak hartu edota ekimenak bideratzeko aukera duen edonori norabide horretan aholkua eskaintzea. Helburu hau gogoan, batzordearen lana hainbat zereginetan banatu da:



1. Euskarazko IKT alorrean egon daitezkeen beharrak identifikatzea.
2. Identifikatutako beharren azterketa eta lehenespena egitea.
3. Lehentasun horietan sakontzea, eraginkortasun eta egingarritasunaren baitako sailkapena eginez.
4. «Euskarazko IKTak: Gomendioak herri-aginteentzat» dokumentua aurkeztea.

## 2.1. Lan-dinamika

Lehenik eta behin, lanerako oinarrizko dokumentu bat proposatu zitzaien batzordekideei<sup>2</sup>. Bertan, testuinguru anitz eta eragile ezberdinengandik jasotako egitekoen zerrenda luze bat bildu zen, euskarazko IKT alorrean zein Interneten euskararen presentzia sustatzeko egitekoen zerrenda 4 atal nagusitan sailkatua. Jarraian, atal orokor horiek ikus daitezke.

1. Euskararen IKTen egoeraren inguruko datuak bildu.
2. Interneten euskarazko edukiak sortu eta sustatu (baita euskara ikasteko edukiak ere).
3. Euskarazko tresnak sortu eta sustatu.
4. Euskarazko IKTen ikusgarritasuna eta promozioa sustatu.

---

2. Jatorrizko dokumentua kontsultatu nahi izanez gero, dokumentu honen eranskin gisa topa daiteke.



- a. Garapena eta promozioa sustatu
- b. Diru-laguntzen deialdia hobetzeko proposamenak aztertu
- c. Aspektu normatiboa kontuan izan

Zerrendaren egitura, sailkapena eta beharrak banan-banan aztertu eta eztabaidatu ondoren, epe bat zabaldu zen zeregin horiek aztertu edota osatzeko, eta eginkizun berriak proposatzeko.

Ekarpen guztiak jaso ondoren, dokumentuaren bigarren bertsioa aurkeztu zitzairen batzordekideei. Ekarpene guztiak —nola aurreko zereginak osatzera zetozenak, hala proposamen berriak— berriz ere banan-banan aztertu ondoren, egitekoak lehenesteko prozedura erabaki zen. Bileran bertan jasotako ekarpenekin, dokumentuaren 3. bertsioa idatzi zen eta zereginak formulario formatura eraman ziren, batzordekideek puntuazioa eman ahal izateko. Jarraian, epe bat zabaldu zen formularioan jasotako zeregin guztiak erabakitako prozeduraren bitartez puntuatzeko, alegia, garrantziaren arabera sailkatzeko zeregin bakoitzari 1, 2 edo 3 puntu emanez: 3 (oso garrantzitsua); 2 (garrantzitsua); 1 (ez da lehenetsia).

«Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat» dokumentua galdeketa ateratako emaitzen arabera egokitzearekin batera, lehenetsitako zereginen azalpena gehitu zen, ondoko eskema jarraituz:

- ▶ Zertan datza zeregina?
- ▶ Zergatik da garrantzitsua sustatzea?
- ▶ Zehazki zein ekimen egin daiteke hura bultzatzeko?

IKT Batzorde-atal Bereziaren lana izan da, beraz, hasierako proposamena aztertu, proposamen berriak luzatu, moldatu eta lehenetsia. Halaber, zeregin zehatzak eta horiek gauzatzeko



ekimenak proposatzea. Zeregin honetan, batzordekideez gain, kanpoko hainbat eragileren aholkua ere kontuan izan da<sup>3</sup>.

Azkenik, Internet eta IKTen izaera aldakorrari erreparatuz, dokumentu hau etengabe eguneratzearen garrantzia azpimarratu behar da.

---

3 Batzordekide ez diren eragileak: Xabier Cañas, Marko Txopitea, Josu Waliño eta Kike Amonarriz.

## ALORKAKO LEHENTASUN-HURRENKERA

Komeni da argitzea arrazoi ezberdinak izan direla kontuan proposamen batzuk lehenesteko eta beste batzuk baztertzeko orduan. Esaterako, batzuk ez dira lehenetasunen zerrendara iritsi garrantzia kontuan izanda. Beste batzuk, ordea, garrantzi-tsuak izanagatik ere, ulertu da ibilbide bat egiten ari dela norabide horretan eta, une honetan, beste ekimen batzuk sustatzea eraginkorragoa izan daitekeela. Gauzak horrela, abiapuntuko proposamen guztiak banan-banan aztertu ondoren, eta aurreko guztia kontuan izanda, ondorengoa izan da batzordekideek ezarritako **alorkako lehenetasun-hurrenkera**. Geroago azalduko dira xehetasunez identifikatutako lehenetasunak.

1. Euskararen IKTen egoeraren inguruko datuak bildu:
  1. Datuak lortu (erabilera, sartzea...). Euskararen IKTen egoeraren inguruko datu eguneratuak izateko bilketa sistematizatu eta hori euskararen adierazle sisteman integratu.
  2. Euskaldunok gehien erabiltzen ditugun aplikazioak, CMSak, sare sozialak... identifikatu eta ahalik eta azkarren itzuli/lokalizatu.
  3. a. Zaintza teknologikoa ziurtatu.  
b. Sareaneuskara sustatzen ari diren ekimenak identifikatu eta bultzatu.



2. Interneten euskarazko edukiak sustatu (baita euskara ikasteko edukiak ere):
  1. Euskarazko Wikipedia sustatu.
  2. a. Ikus-entzunezko alorrean eragin.  
b. Bideo-jokoen alorrean eragin.
  3. Publikoa den edukia sareratu (bereziki garrantzitsua EITBren edukia).
3. Euskarazko tresnak sortu eta sustatu.
  1. Hizkuntza-teknologiak garatzen lagundu eta berariazko plana garatu.
  2. Merkatuan agertzen diren berrikuntza arrakastatsuenak ahalik eta azkarren lokalizatu.
  3. a. Hainbat aplikaziotarako tresnen garapena sustatu.  
b. Administrazio publikoetan informatikako tresnak euskaraz konfiguratu.
4. Euskarazko IKTen ikusgarritasuna, garapena eta promozioa sustatu.
  1. Estrategikoak diren enprekin etengabeko harremana eta elkarlanerako bideak sustatu.
  2. Puntu.eus-en garapena sustatu.
  3. Hizkuntzen industria indartzeko egitasmoak bultzatu.
5. Diru-laguntzen deialdia hobetzeko proposamenak aztertu.
  1. a. Eduki propioak sortu eta etengabe edo maiz berritzen diren kontuan izan diru-laguntzak ematean.  
b. Administrazioaren diru-laguntzaz sortutako edukien Copyleft politika arautu, lizentzia libreak bultzatuz.
  2. Irismen maila kontuan izan dirua banatzerakoan eta neurketa sistema bateratua erabili.



# 4

## LEHENTASUN HANDIENeko GOMENDIOAK

Atalak alde batera utziz eta **puntuazio orokorrari erreparatuz**, ondorengoak dira batzordekideek lehenetsitako proposamenak:

1. Euskarazko Wikipedia sustatu.
2. Estrategikoak diren enprekin etengabeko harremana eta elkarlanerako bideak sustatu.
3. Eduki propioak sortu eta etengabe edo maiz berritzen diren kontuan izan diru-laguntzak ematean.
4. Administrazioaren diru-laguntzaz sortutako edukien Copyleft politika arautu, lizentzia libreak bultzatu.
5. Euskarazko IKTen inguruko datuak lortu (erabilera, sartzeta...).
6. Ikus-entzunezkoen alorrean eragin.
7. Bideo-jokoen alorrean eragin.
8. Euskaldunok gehien erabiltzen ditugun aplikazioak, CMSak, sare sozialak eta bestelakoak identifikatu eta ahalik eta azkarren itzuli/lokalizatu.
9. Zaintza teknologikoa ziurtatu.
10. Sarean euskara sustatzen ari diren ekimenak identifikatu eta bultzatu.
11. Publikoa den edukia sareratu.
12. Hizkuntza-teknologiak garatzen lagundu eta berariazko plana garatu.







# 5

## LEHENTASUN HANDIENeko GOMENDIOEN AZALPEN LABURRA

### 1. Euskarazko Wikipedia sustatu

Wikipedia munduko 6. webgune bisitatuena da eta ezagutzaren atal ezberdinak jorratzen dituzten 38.000.000 artikuluko ditu. Gaur egun, 290 hizkuntzatan dago, eta ingelesezkoa da artikuluko gehien dituenena, 5.000.000 artikulutik gora, hain zuzen.

Euskarazko Wikipedia, ia 250.000 artikuluko baino gehiagorekin, 31. postuan dago sailkapen orokorrean, hiztunen arabera dago-kiona baino askoz gorago, eta estatu hizkuntzak edo Europar Batasuneko milioika hiztun dituzten beste batzuen aurretik: daniera, bulgariera, greziera, lituaniera... Wikipedia, ezberrik gabe, euskararentzat entziklopedia handia eta baliozkoa da.

Hau guztia ahalegin bateratuei esker lortu da (komunitatea, Administrazioa...) eta, batez ere, Wikipedia proiektu kolaboratzailea eta parte hartzailea delako, hau da, nor bere borondate eta gogoaren baitan aritzen delako. Euskal Wikipediaren atzean, komunitate trinko eta langilea dago: hilean, 300 lankide ingururen ekarpenak jasotzen dira. Dena den, Wikipediaren muina 25 lagun inguruko komunitatearen inguruan mugitzen da, 50 ekarpenetik gora egiten dituztenak.



**WIKIPEDIA**  
Entziklopedia askea



Tamalez, egiten den lan guztia ez da oraindik nahikoa euskal hiztunen ezagutza beharrak asetzeko. Komeni da kontuan hartzea, kantitatea garrantzitsua izanda ere, arreta berezia jarri beharko litzatekeela edukien kalitatean datozen urteetan.

Gaur egun dagoen lankide masa kritikoa, baina, ez da nahikoa erronka horiei euren kabuz aurre egiteko eta ez da erraza izango, hiztun kopuruari erreparatuz, lankide kopurua modu naturalean handitzea. Euskarazko Wikipediaren erronka nagusia eraginkortasuna bilatzea da, alegia, beste eragileekin elkarlana sustatzea. Hortaz, oso garrantzitsua da beste gune batean/ baterako egiten diren lanak Wikipedian ere isla izatea.

Elkarlanerako abiapuntua egokia da: garapen ekonomikoa, unibertsitateak, komunikabide propioak, kultura ekipamenduak (museoak, liburutegiak, zentro garaikideak, artxiboak...) eta hizkuntza politika egiteko eskumena. Wikipediaren sustapenerako ezinbestekoa da ezagutzaren inguruan lan egiten duten erakunde horien guztien arteko lankidetzeta.

## **Zergatik sustatu?**

Egun, Wikipedia ezinbesteko tresna da ezagutzaren edozein eremutara modu bizkorrean eta errazean iristeko. Entziklopedia askea da, hau da, edonoren eskura jartzen du jakintza mugarik gabe, publizitaterik gabe eta datuekin salerosian ibili gabe.

Paperezko entziklopediak desagertu zirenetik (Encyclopædia Britannica ez da dagoeneko argitaratzen), Wikipedia erreferente garrantzitsu bihurtu da ezagutzaren alorrean. Hizkuntza gutxituei, gainera, aukera anitzak zabaltzen dizkie; izan ere, entziklopedia bat argitaratze eta mantentzearen gastuak desagertzen baitira.



Bestetik, Wikikipediaren sailkapen orokorrean ondo kokatuta egoteak, eta, batez ere, hizkuntza jakin bateko hiztunentzat baliagarria izateak prestigioa ematen dio hizkuntza horri. Bide horretan, garrantzitsua da erabiltzaileek euskarazko Wikikipediari beste hizkuntzetakoei ematen dieten fidagarritasuna eman diezaioten lortzea.

Azkenik, garrantzitsua da gogora ekartzea ez dela soilik diru-laguntza kontua, elkarlanerako bide berriak jorratu eta eraginkorragoak izatean egon daitekeela giltza. Orain arte eginda dagoen lana ondo aprobetxatuz (hainbat edukiri lizentzia libreak emanez, unibertsitateetako azken graduetako lanak bertan eginez eta zuzenduz, etab.), aurrera pauso handia eman daiteke.

## Nola susta daiteke?


Besteak beste, ondorengo ekimenak egin daitezke euskarazko Wikipedia sustatzeko:

1. Unibertsitate, GLAM (galeriak, liburutegiak, artxiboak eta museoak) eta Wikikipediaren arteko lankidetzak: Unibertsitateek, GLAMek eta Wikikipediak ezagutzaren inguruan lan egiteaz gain, neurri batean antzeko helburuak dituztela esan daiteke:
  - ▶ Unibertsitateak hezkuntza eta ikerketa jorratzen ditu. Ezagutza transmititu eta ekoizten du.
  - ▶ GLAMak (galeriak, liburutegiak, artxiboak eta museoak) ezagutza bildu, klasifikatu eta jendearen eskura jartzen du.
  - ▶ Wikipedia ezagutza bildu, antolatu eta zabaldu egiten duen entziklopedia digital bat da.

Nola sustatu hiru erakunde ezberdinen arteko lankidetzak? Donostia/San Sebastián Europako Kultur Hiriburua 2016aren harira garatzen ari den proiektu batek ematen dizkigu etorkizunerako pistak: Wikiproiektu: Haur eta Gazte Literatura.



Ondorengoa izango litzateke balizko lan eskema:



Proiektu hau, esan bezala, oraintxe bertan garatzen ari da eta emaitzak ondokoak izatea espero da:

- Euskal ilustratzaileei buruzko 15 artikulua.
- Euskal idazleei buruzko 15 artikulua (hobetuak).
- Euskal haur eta gazte literaturako liburuei buruzko 15 artikulua.



45 artikulua guztira, horietako asko, erabat berriak. Ikus, adibidez, garatzen ari den horietako artikulua baten itxura, kalitatea eta kantitatea bat eginik: [https://eu.wikipedia.org/wiki/Aitziber\\_Alonso](https://eu.wikipedia.org/wiki/Aitziber_Alonso)

Proiektu honek ez du kosturik, nahikoa da unibertsitateko irakasle, liburuzain eta wikilari batzuen borondatea lortzea edota erakunde horien konpromisoa. Gure erakundeak harritxiak dira, baina oraindik ere kultura itxi batean lan egin dute kasu askotan. Zer gertatuko litzateke artxiboek, museoek, unibertsitateek... euskarazko Wikipediari atea irekiko balizkiote?

## 2. Wikilari egoiliarak sustatu:

Wikipedian bertan irakur dezakegun bezala, wikilari egoiliarra Wikipediako editore bat da, erakunde jakin batean egonaldi bat egiten duena. Egoiliarrek jasotzen dituzten erakundeak kultura eta ondarearen alorrekoak izan ohi dira, bereziki, galeriak, liburutegiak, artxibategiak eta museoak, GLAM akronimoaz ezagunagoak direnak. Egoiliarraren zereginak hauek izan ohi dira: erakundearekin zerikusia duten artikulua eta sarrerak Wikipedian sortzea; bertako edukia lizentzia askean jartzeko laguntzea eta bultzatzea, eta erakunde eta Wikipedia komunitatearen arteko harremanak garatzea. Halaber, egoiliarrek lagundu ohi du Wikipediarekin zerikusia duten GLAM erakunde eta publiko orokorraren arteko jarduerak koordinatzen:


Hainbat erakunde jaso dituzte wikilari egoiliarrek, haietako batzuk aski ezagunak, esaterako, Britaniar Museoa eta Britaniar Liburutegia, eta baita erakunde txikiagoak ere, adibidez, Erresuma Batuko Derby Museum and Art Gallery eta



The New Art Gallery Walsall; Frantzian, Versaillesko jauregia; Katalunian Picasso Museoa; AEBetan, Smithsonian Institution, Gerald R. Ford Presidential Library, National Archives and Records Administration, Norvegiako Liburutegi Nazionala, eta Suitzako Artxibategi Federala.

Ondorengo diagraman, wikilari egoiliarra eta komunitatearen arteko harremana erakusten da. Bertan, egonaldi programa batean dauden eragileak eta bakoitzak eman eta jasotzen duena ikus daiteke.

**Wikilari egoiliarra (adibidea)**  
**Lan-eremuen diagrama**  
**GLAM-Wikimedia lankidetzaren betarako**



Wikilari egoiliar diagrama, CC BY-SA 4.0  
Xabier Cañas after PKM after Lori Byrd Phillips



3. Unitate didaktiko bat sortu irakasleek eta ikasleek Wikipedia eta Wikidia ezagutu eta ekarpenak egiten ikasteko: maila zehatz baterako unitate didaktiko bat sor daiteke irakasleek eta ikasleek Wikidia eta Wikipediaren garrantzia, helburuak, eta abar ezagutzeko eta horietan ekarpenak egiten ikasteko. Unitate didaktikoaren ikaste-emaizta Wikidian edota Wikipedian artikulua bat sortzea izan daiteke.

**Vikidia** 8-13 urte bitarteko umeentzako euskal entziklopedia bat da, adin-tarte horretako umeentzako moduko lexiko eta sintaxiarekin egina, euskara garbi eta errazean, eta umeen eskola-beharretara bereziki moldatua. Asmoa da adin horretako euskal umeek ere parte hartzea **Vikidia** egiten, haiek izatea interesatzen zaizkien artikulua idazten dituztenak, beharbada euren irakasleen laguntzarekin, eskolarako baliagarriak izan daitezkeen gaietan euren ekarpena eginez.

4. Euskal Wikipediaren edizio topaketak eta maratoiak antolatu.

Wikipedia sustatzeko edizio topaketak eta maratoiak antola daitezke. Ondoko helburuak izan ditzake, besteak beste, edizio-maratoi batek:

- ▶ Wikipedia: Jakintza librearen entziklopedia ezagutarazi.
- ▶ Wikipedian editatzeko erremintak erakutsi eta erabiltzen ikasi.
- ▶ Itzulpen automatikorako tresnak ezagutu.
- ▶ Itzulpen automatikoa eta Euskal Wikipedia elkarlanean ikusi.
- ▶ Euskal Wikipedia hornitu eta edukiz osatu.



## 2. Estrategikoak diren enpresekin etengabeko harremana eta elkarlanerako bideak sustatu



Interneten estrategikoak diren enpresekin (Google, Twitter, Facebook, Apple, Samsung, Netflix, Amazon, Mozilla, Microsoft...) etengabeko harremana, elkarriketa eta akordioak bultzatzea garrantzitsua izan daiteke euskarak mugikor eta web esparruan presentzia izan dezan. Baita kontaktu horiek bertako eragile teknologikoekin partekatzea ere.

### Zergatik sustatu?

Euskara/IKT garapen asko Interneteko eragile pribatu nagusien borondatearen eta gaitasunen mende daude, neurri handi batean: mugikorretan euskara aurkitzea, mapetan euskal toponimia, ahotsarekin lotutako zerbitzuen garapena, interfaze zein edukien alorrean garrantzitsuak izan daitezkeen zerbitzuak, etab.

Kontaktu indibidualak egon badaude (enpresa jakin bat beste batekin harremanetan ipintzen da...), baina ahalegin zatikatuak egin ohi dira. Horren ordez, Jaurlaritzaren izenean edo, gutxienez, haren babesarekin, sinergiak eragin daitezke, bai euskal IKT eragileen artean eta baita Interneteko eragile pribatu nagusienekin ere.

Egungo eta etorkizuneko eragile pribatu nagusienekin harremana errazte aldera, azpiegitura, protokolo edo sare bat eraikitzea garrantzitsua da. Demagun, egun batetik bestera, Duolingo eragile garrantzitsu bihurtzen dela. Nola kontaktatu harekin? Harreman sare eta protokolo bat antolatua izanez gero, errazagoa litzateke harremanak, eskaerak eta kolaborazioak, besteak beste, bideratzea.





## Nola susta daiteke?

1. SPRIren nazioarteko delegaritzen eredia jarraitu: euskal eragileen eta Interneteko eragile pribatu nagusien arteko harremanak errazte aldera, ordezkariak izendatu enpresa hauetan eta baita Eusko Jaurlaritzan ere (agian, SPRIren bitartez egin zitekeen bitartekaritza lana).
2. Saio mugatu bat egin eragile nagusi horietako bat edo birekin, Google eta Facebookekin, esaterako. «Kontaktu Sarearen» hastapena mugatua bada, errazago antola daiteke beharbada.
3. Enpresa hauek Euskal Herrian lortzen duten balio ekonomikoaren neurketa egin. Esaterako, Microsoftentzat lizentzia salmenta sektore publikoan garrantzitsua da bere zerbitzuak euskaratzeko. Beste enpresa batzuekin antzeko aukerak aztertu, euren produktuen euskarazko erabilerari dagokionez.
4. PuntuEUS Fundazioak eskuratutako ezagutzaren berri izateko bidea egin: PuntuEUS Fundazioak .EUS domeinuaren garapena indartze aldera eta euskarak Interneten duen presentzia sustatzeko asmoz, hainbat bilera egin ditu azken urteotan IKT alorreko enpresa handiekin (Google, Twitter, Tucows, Amazon eta ICANNekin). Interesgarria izan daiteke ezagutza horiek baliatzeko aukerak aztertzea.

## 3. Eduki propioak sortu eta etengabe edo maiz berritzen diren kontuan izan diru-laguntzak banatzean

Euskaraz kontsumi daitezkeen eduki gehiago izate aldera, diru-laguntzak banatzen direnean, saritzen den proiektuaren baitan,



eduki propioak sortzen direla eta hauek etengabe eguneratzen direla kontuan hartzea gomendatzen da.

Horrez gain, kontuan hartzekoa da testuen originaltasuna, lizentzia libreen erabileraz material berria birsortzeko eskaintzen duten erraztasuna, multimedia baliabideen ekoizpena eta edukien kalitatea.

### **Zergatik sustatu?**

Eduki berriak sortzeak eta hauek etengabe eguneratzeak aberastu egiten dute hizkuntza komunitate batek bere hizkuntzan bizitzeko duen aukera.

Euskaraz eduki berriak sortzean, hizkuntzak espazio berriak irabazten ditu sarean. Erabiltzaileek euren eduki beharra asetzeaz gain, hizkuntza ikusarazten dute sare sozialen bidez. Edukia kalitatezkoa bada, hizkuntzaz dugun irudia indartu egiten da komunitatearen baitan.

Garrantzitsua da informazioa maiz eguneratzen duten proiektuak saritzea, euskal komunitatea ere, gainontzeko guztiak bezala, teknologia berriekin harreman estuan bizi delako, abiadura azkarrean. Gainontzeko hizkuntza komunitateek, euren tamaina, lege eta baliabideengatik nagusiki, etengabeko eduki jariora eragiten dute. Euskarazkoa ekoizten dutenak saritzeak zentzu guztia du, lan hau ahulduz gero, sarean dabilzan euskaldunek erdaretan dagoen edukiari eutsiko baitiote, euskarak espazioak galduz ohituretan.

Sarean ere erabiltzaileentzat interesgarri den informazioa euskaraz izateak hizkuntza ohituretan eragiten du, naturalizatuz XXI. mendeko gizarte honetan hizkuntza modernoa daukagula



euskaldunok, garaietara egokitzen asmatu duena eta bide egiten ari dena.

### **Nola susta daiteke?**

Proiektuek ekoizten duten edukia kontabilizatu: errazena eta eraginkorra proiektuek ekoizten duten edukia kontabilizatzea izan daiteke.

Sare sozialetan hizkuntza ikusarazten denez, proiektuek euskarazko edukien bidez duten eragina saritu daiteke, sare sozialetan duten irismena aintzat hartuz.

## **4. Diru-laguntza publikoaz sortutako edukien Copyleft politika arautu, lizentzia libreak bultzatuz**

Azken hamarkadetan, IKTen eraginez eta mundu mailan gertatzen ari den eraldaketaren eskutik, euskal sortzaileek lizentzia libreak gero eta gehiago erabiltzen dituzte. Enpresa eta egile bakoitzak bere arrazoiak baditu ere, euskal erakunde publikoek copyleft-a bultzatu beharko lukete euskararen normalkuntzan lagungarria delako.

Euskaldunok gaur egungo gizartean copyright lizentzia tradizionalak erakusten dituen muga praktikoez gero eta gehiago jabetzen ari gara eta pixkanaka-pixkanaka, ia konturatu gabe, copyleft izenaz ezagutzen diren alternatiba desberdinak jorratzen



dihardugu. Izan ere, ohiko copyrightak lanen zabaltze, kopiatze, hedatze eta ia erabilera modu guztiak debekatzen dituen bitartean, teknologia berriekin batera sortutako copyleftak egileei zein eskubide gorde eta zein eskubide utzi nahi dituzten hautatzeko aukera ematen die. Copylefta, beraz, jabetza intelektualaren egile eskubideekin guztiz bateragarria da, eta IKTek ekarri dituzten aukera berriak behar bezala ustiatzen ditu. Hasierako copyleft lizentziak, softwarean erabiltzen den GPL izenekoak, eta ondoren beste lan mota guztientzat sortutako Creative Commons lizentzia sortak (zehazki sorta horretatik partekatu-berdin klausula dutenak) ezaugarri biriko bat dute eta egileei euren lanak nahi duten moduan zabalduak eta moldatuak izan daitezzen bermatzeko boterea ematen diete.

Euskararen hedapenerako copyleft motako lizentziak eragin-korrenak badira ere (aipatutako birikotasuna dutenak), badira libreak diren lizentzia gehiago ere. Hona hemen erabilienak:

- ▶ Software garapenetan:
  - Librea (copyleft gogorarekin): GPL (General Public License)
  - Libreak (copyleft ahularekin): LGPL, MPL
  - Libreak (copyleft gabe): AGPL, Apache, MIT, BSD
  
- ▶ Bestelako lan guztietan:
  - Librea (eta copyleft): CC BY-SA (Creative Commons Aitortu-Partekatu berdin)
  - Libreak (copyleft gabe): CC BY (Creative Commons Aitortu), CC Zero (eskaintza da, ez lizentzia)

Komeni da aipatzea badirela beste CC lizentzia batzuk libreak ez direnak.

Copyleft mugimendua delakoa —beste lizentzia libre batzuk ere barnebiltzen dituen—, egileek beraiek hasitakoa izanik,



maiz eragin urriko ekimenekin lotzen da (autoedizioa, hainbaten ekimena, crowdfunding-a). Halere, gaur egungo egoera guztiz bestelakoa da, lizentzia hauek ia esparru guztietan lortu duten arrakasta eta atxikimendua ukaezinak baitira. Wikipedia eta Android, esaterako, ezinezkoak lirateke copylefta eta lizentzia libreak existituko ez balira.


Euskal gizarteari erreparatuz, gehienetan jakitun ez bagara ere, copyleftaz inguraturik gaude: irratietan entzuten ditugun euskal musika taldeetan, euskarazko hainbat telebistatan (Hamaika), eskuetan ditugun euskarazko egunkari (Berria) eta aldizkarietan (Argia), irakurtzen ditugun liburuetan (Itxaro Borda, Harkaitz Cano, Unai Elorriaga, Asel Luzarraga, Susa literatura...), eta abar.

Interneti erreparatzen badiogu, copyleft lizentziadun euskarazko webguneak eta komunitateak oso ohikoak dira (Zuzeu, Sustatu, Wikipedia euskaraz, Librezaile...). Euskadiko Software Libreko Enpresen Elkarateak duen indarra eta fakturazioa copylefta software garapenean ere guztiz erroturik dagoen seinale da.

Lizentzia libreen erabilera enpresa eta norbanakoen artean gero eta errotuago egoteaz gain, euskal erakundeen artean ere gero eta ohikoagoa da: udaletan, aldundietan, fundazioetan (Azkue, esaterako), Euskaltzaindian eta baita Eusko Jaurlaritzan bertan ere.



## Lizentzia ezberdinen semaforoa



Irdia: Marko Txopitea, Domeinu Publikoa.

## Zergatik sustatu?

Copyrightak euskaldunoi behin eta berriz kontsumitzaile soil izateko aukera baino ez digu ematen. Copyleftak, berriz, euskaldun orori behin eta berriz euskara indartzeko gonbitea egiten digu,



han-hemenka aukera berriak eskainiz. Dagoeneko aukera horiek ustiatzen hasiak gara; hala ere, copylefta zenbat eta hedatuago egon, orduan eta euskara indartzeko aukera gehiago izango ditugu.

Euskararen hiztun kopurua beste hizkuntza askorekiko nabarmen txikiagoa denez, jakina da munduko egile eta bestelako eragile eta bitartekari gehienentzat euskaldunak ia ikusezinak garela. Copyrightean oinarritzen den kulturaren industriak eta informatikaren industriak, adibidez, euskarazko merkatua baztertzen dute ekonomikoki interesik ez duelako. Urtez urte hazten ari den copyleftaren merkatuan, berriz, mugak txikiagoak dira eta euskaldunontzako aukerak ugaritzen doaz.

Copylefta bultzatuz, zehazki nola indartzen da euskara?

- ▶ Copylefta copyrightean oinarrituta dago eta, harekin bateragarria izateaz gain, gaur egungo eduki fisiko eta digitalentzako abantaila batzuk ditu. Besteak beste, egileari haren eskubide batzuk uzteko aukera ematen dio, praktikan euskarazko lanak gehiago zabaltzea lortuz.
- ▶ Euskal gizartean copylefta eta lizentzia libreak gero eta zabalduago daude (euskaldun askok dagoeneko badaki copyleftak euskara indartzen duela).
- ▶ Lizentzia libreak dituzten eta euskaraz ez dauden lanetan hirugarrenei lan eratorriak sortzeko baimena ematen zaienez, eduki horiek euskaratzea asko errazten da (horri esker erabil ditzakegu euskaraz hainbeste webgune eta programa).
- ▶ Lizentzia libreak erabiltzeak lanak lehen unetik euskaraz sortzea erakargarriago bihur dezake (softwarearen esparruan maiz gertatzen da hirugarrenek edukiak beste hainbat hizkuntzatarara itzultzen laguntzen dutela, zeharka euskara gehiago indartuz).



- ▶ Copyleftak ematea, partekatzea eta laguntzea sustatzen du. Hari esker, nonahi sortzen diren ekoizle eta erabiltzaileen komunitateen bitartez (baita euskarazkoak ere), gizarte askeagoa, parte-hartzaileagoa eta dibertsitatearenganako ulerkorragoa garatzen laguntzen du (baita hizkuntz komunitateekiko ere).

## Nola susta daiteke?

Diru-laguntza publikoen esparruan, ondoko ekimenak egin daitezke:

1. Proiektuetarako sortzen diren lan guztiak, euskaraz egon ala ez, lizentzia libreekin argitara daitezen sustatu. Hau lortzeko, diru-laguntzen onarpen baldintzetan lizentzia libreak erabiltzen dituzten ekimenak lehenetsiko direla ezar daiteke.
2. Aurretik lizentzia libredun lanak argitaratu dituzten eskatzaileen proiektuak lehenetsiko direla ezar daiteke.
3. Sustatzeaz eta lehenesteaz haratago, diruz laguntzen diren proiektuen sarreren %50a edo gehiago diru publikoa den proiektuetan sortzen diren edukiek ezinbestean lizentzia libreak izan behar dituztela arautu daiteke, proiektuak eginezinak bihurtu litezkeen kasu berezietan salbuespenak ezarriz.
4. Edonola ere, lizentzia dualak erabiltzea posible denez (egile batek eduki bera adibidez ohiko copyright lizentzia murriztailearekin eta, jarraian, Creative Commons BY-SA 4.0 librearekin argitara dezake), proiektuko eskatzaileek arrazoi praktikoengatik eduki bat lizentzia liberrik gabe erabili behar izatekotan, proiektua diruz lagundua izateko eduki berbera lizentzia librearekin ere argitaratzea arautu daiteke.





5. Eusko Jaurlaritzak eduki libreen gordailu publiko eta doako bat sor lezake, diru-laguntzei esker sortutako eduki libre guztiak leku bakar eta seguruan argitaratuz eta gizarteratzen lagunduz.
6. GPL lizentzia eta Creative Commons lizentziak euskaraturik badaude ere, azken bertsioak ez daude. Beraz, komeniko litzateke Eusko Jaurlaritzak dituen baliabideekin euskararen eta zuzenbidearen ikuspuntutik bertsio hauen eta ondorengo kalitatezko itzulpenak eta lokalizazioak bermatzea. Kontuan izan behar da itzulpenak eguneratuta izateaz gain, ezinbestekoa dela legislazioaren gaineko bertsioak egokitzea. Horrela, diru-laguntza publikoen esparruan ez ezik, dagoeneko lizentzia hauek erabiltzen dituzten euskal norbanako, enpresa eta erakundeek ere erosotasun handiagoz eta, agian, baita maiztasun handiagoz ere erabiliko lituzkete.

## **5. Euskarazko IKTen inguruko datuak lortu (erabilera, sartzea...)**

Euskarazko IKTen egoeraren inguruko datu eguneratuak izateko, datuen bilketa sistematizatzea eta euskararen adierazle sisteman integratzea garrantzitsua da. Halaber, garrantzitsua da euskara eta IKTen arteko lotura landuko duen estatistika lerro iraunkor bat martxan jartzea.

Datuak izatea edozein kudeaketarako oinarrizko-oinarrizko baliabidea da; izan ere, datuetan oinarritutako kudeaketak hartu behar diren erabakiak eraginkorragoak izatea eragingo baitu.



Ahalik eta datu gehien izatea garrantzitsua da; dena den, datu uholdean ez erortzeko, aginte taula bat sortu beharko litzateke, begi kolpe batean unean uneko euskarazko IKTen argazkia bistaratu ahal izateko. Horretaz gain, besteak beste, norantza egokian gabiltzan, erritmo onean goazen jakiteko eta mota guztietako alderaketak egiteko baliagarria izango litzateke. Praktika arrakastatsuak antzemateko eta bultzatzeko ere balio beharko luke.

Datuak biltzeari dagokionez, aztertu beharko litzateke zein izan litekeen horretarako sistemarik eraginkor eta fidagarriena. Horren haritik, kontuan izan beharko dira, alde batetik, Internetek berak ematen dizkigun datuak eta, bestetik, inkesta edo erabakitako metodoen bidez lor daitezkeenak, datuak fidagarri izan daitezen behar besteko lagina hartuz.

### **Zergatik sustatu?**

Ez da komeni iritzi ezberdinen arabera jokatzera eta usteak saihestu egin beharko lirateke erabaki bat edo beste bat hartzeko orduan; izan ere, erabaki bat ala bestea ustearen baitan hartuz gero, noraezean dagoen estrategia bat izatera behartuta egongo baikara.

Ez da nahikoa datu zaparrada izatearekin; kalitatezko datuak bildu behar dira. Horiek ordenatu eta erabilgarri jartzea da gakoa. Ondorioak modu errazean ateratzen lagunduko digun tresna sortzea komeni da. Estandarretan oinarritu beharko genuke eta, euskara bereizgarri balitz, aldagai hori ere sartu beharko litzateke. Datu kudeatzaile berri bat sortu baino dagoen eredu bat egokitu beharko genuke, beti kontuan izanik euskara ere badela neurgai IKTetan.



Bildutako datuek bereziki kudeaketarako balio beharko lukete. Beraz, praktikotasuna begiratu beharko da, emaitzei zuzendutako datuak eskuratu eta talde arrakasta bultzatuko duen datutegia lortu.

### Nola susta daiteke?

1. Diruz laguntzen diren proiektu guztien arrakasta neurtzeko behar diren datuak lortu.
2. Neurketa estandar bat diseinatu.
3. «Piwik» neurgailuaren antzeko bat egokitu daiteke eta, baldintza moduan, hura ezartzea eskatu. Mota honetako neurgailu batekin:
  - a. Webgune elebidunen ganorazko neurketa egin ahal izango litzateke, gaur egun egiterik ez dagoena.
  - b. Diruz laguntzen duen erakundeak eskuragarri izango luke datu-trafikoa.
  - c. Diruz laguntzen duen erakundeak neurtu nahi diren parametroak definitu ahal izango lituzke.
  - d. Datuen gaineko kontrola lortuko litzateke, gaur egun Google Analytics erabilia lortzen ez dena. Googlek algoritmoa aldatuko balu, adibidez, urteetako datuak galtzeko arriskua egongo litzateke.
4. Urtero, edo behintzat, aldiro, inkesta bidezko emaitzekin erkatu sistema ezberdinek eman ditzaketan datuak.
5. Aginte taula simple eta eraginkor bat osatu ekimen ezberdinak barnebilduko dituen.
6. Laguntzen diren IKTek euskararen sustapenean duten eraginkortasuna neurtzeko parametroak erabaki eta taula batera ekarri.



## 6. Ikus-entzunezkoen alorrean eragin



Inori ez dio ihes egiten ikus-entzunezko ekoizpenak gero eta gehiago erabiltzen direla; beraz, garrantzitsua da euskaraz ahalik eta ikus-entzunezko gehien izatea, erabiltzaileak eskura izan ditzan mota hauetako produktuak kontsumitzeko garaian. Ikus-entzunezko edukiak uneoro darabiltzate erabiltzaileek eta horiek euskaraz erabili ahal izatea eta erabiltzea da erronka.

Hari beretik, gazteengana heltzeko ezinbesteko erreminta da. Beraz, gazteen artean euskara sustatzeko, gazteentzako erakargarri den edukia sortu eta sortzera animatu behar da (youtuberrak, gazte-edukia sortu, gazteek edukia sor dezaten sustatu...).

Azkenik, sortuta dagoen eta sortuko diren ekoizpenak ageriko bihurtzea garrantzitsua da eta, ondoren, haien erabilera sustatzea.

### Zergatik sustatu?

Omnia Comunicación agentziaren datuen arabera, Internet erabiltzaileen %80tik gora dira bideoa kontsumitzen dutenak konektatzen diren aldiro. Une honetan, Youtube da gehien erabiltzen den gunea, eta ez bakarrik bideoak ikusteko, bilaketarako ere bigarren gune erabiliena da, Google bilatzailearen atzetik. Beraz, Interneteko erabiltzailea une honetan Youtuben dago eta jendea dabilen lekuan dago euskalduna. Halere, zenbat eduki dago euskaraz eskuragarri? Garrantzitsuena, beraz, eduki hori erabiltzaile guztien eskura, bilatzaileen bistara eta ahalik eta eskuragarrien (lizentzia libreakin...) ipintzea da.



Alde batetik, eginda dagoen edukia libre sareratzea urrats garrantzitsua izan daiteke. Arlo horretan, besteak beste, euskarazko edukia sortu duten eta sortzen ari diren telebistek zeresan handia izan dezakete. Bestetik, gero eta errazagoa eta merkeagoa da ikus-entzunezkoak sortzea. Zer esanik ez smartphoneak garatu direnetik; izan ere, kalitatea asko hobetu da. Horiek guztiak ere kontuan hartzea garrantzitsua litzateke.

Azkenik, sortutako materialaren sareratzea eta elkarlana sustatze aldera, ikus-entzunezkoen inguruan dabilen industria harremanetan ipintzea eta sare bat sortzea lagungarri gerta daiteke (Andoaingo ikus-entzunezko zentroa; ikus-entzunezko ikasketak eskaintzen dituzten unibertsitateak; Tabakalera, Azkuna Zentroa, Ubc eta bestelako espazioak, etab.).

### **Nola susta daiteke?**

- ▶ Euskaraz diharduten telebistetako edukiek lizentzia libreza izan dezaten sustatu, edonork erabiltzeko moduan ipiniz.
- ▶ ETBko edukiak erraz topatzeko moduan ipintzeko aukerak aztertu.
- ▶ Diruz laguntzen diren ikus-entzunezko edukiak libre izan daitezen bultzatu.
- ▶ Gazteengan pentsatutako ikus-entzunezkoak sarean egon daitezen ekimenak babestu.
- ▶ Euskara eta gazteak lotzen dituzten ekimenak identifikatu eta babestu.
- ▶ Gazteak euskaraz sor dezaten bultzatu (lehiaketak, youtuberrak...).
- ▶ Ikus-entzunezkoen inguruan dabilen industria harremanetan ipini eta elkarlanerako sare bat sor dezaten sustatu.



## 7. Bideo-jokoan alorrean eragin

Bideo-jokoan munduan euskararen presentzia handitzea garrantzitsua da. Horretarako, bideo-jokoan plataforma, kontsola eta webguneak euskaraz egotea ahalbidetu beharko litzateke. Halaber, garrantzitsua da bideo-jokoak euskarara itzultzea/lokalizatzea, euskal bideo-joko ekoizleengan eragitea bideo-jokoak euskaraz ere jar ditzaten, bideo-jokoak egiteko trebakuntza euskaraz ere egotea eta euskaraz dauden bideo-jokoan zabalkundea egitea.

### Zergatik sustatu?



Azken urteetan, bideo-jokoak etengabe zabaltzen joan dira, eta gaur egun haien erabilera izugarri hedatu da gazteen artean batez ere, baina ez horien artean bakarrik: gero eta heldu gehiago aritzen da bideo-jokoan euskarri ezberdinetan. Familian ere joka daiteke, horretarako joko eta kontsolak sortu baitituzte. Horren haritik, bideo-jokoetan jolasteko euskarriak ere hedatzen ari dira eta, egun, kontsoletan, kontsola eramangarrietan, PCtan, webean, tabletetan eta mugikorrean jolas dezakegu, besteak beste.

Alabaina, oso bideo-joko gutxi daude euskaraz, eta daudenak batez ere haur txikiei zuzendutakoak dira. Nekez topa daiteke plataforma edo jokorik euskaraz gaztetxo eta helduentzat. Oso garrantzitsua da gazteen aisian hain garrantzitsua den eta hainbeste denbora hartzen duen fenomeno honetan euskarak presentzia handiagoa izan dezan.



## Nola susta daiteke?

- ▶ Bideo-jokoak euskarara lokalizatu: merkatuko bideo-jokorik arrakastatsuenak euskaratu (libreak badira) edo euskaratu daitezzen eragin.
- ▶ Euskal bideo-joko ekoizleengan eragin: garrantzitsua litzateke euskal bideo-joko ekoizleengan eragitea, bideo-jokoak euskaraz ere jar ditzaten.
- ▶ Bideokontsolak eta jokoek plataformak lokalizatzen saiatu: Bideokontsola garrantzitsuenen (Nintendo-ren Wii U, Sony-ren PlayStation 4 eta Microsoft-en Xbox) eta bideo-jokoek plataforma nagusien (Steam) interfaze orokorra (testuak, menuak, mezuak, audioak...) euskaraz jar daitezzen eragin.
- ▶ Bideo-jokoek munduko eragileekin harremanak mantendu: bideokontsola eta plataformen egileekin (Nintendo, Sony, Microsoft, Steam...) eta bideo-joko arrakastatsuen ekoizle nagusiekin (Nintendo, Microsoft, EA Sports, Ubisoft, Sega, Valve, Activision, Capcom, Epic, Disney, Rovio, King, Supercell...) harremanak mantendu eta bitartekaritza lana egin, alde batetik, euren jokoak euskaratzeko eta, bestetik, bideak errazteko etorkizunean aterako dituztenak euskaraz ere atera ditzaten.
- ▶ Bideo-jokoek joerak jarraitu: bideo-jokoek artean arrakasta izaten hasten direnak lehenbailehen detektatu haien euskaratzea bultzatzeko.
- ▶ Euskarazko bideo-jokoak hedatzen lagundu: euskaraz dauden kontsola, plataforma eta jokoek hedapenean lagundu.
- ▶ Euskaraz arituko diren *gamerak* eta *gameplayak* sustatu: euskaraz arituko diren *gamerak* (bideo-jokoen partiden bideoak grabatu eta Internetera igotzen dituzten erabiltzaileak) eta *gameplayak* (partiden bideoak) euskaraz



sustatu. Gamerauntsia gisako komunitateei lagundu; izan ere, garrantzitsua baita komunitate eta sorkuntza propioan eragitea eta erreferente euskaldunak izatea.

- ▶ Bideo-jokoak egiteko trebakuntza euskaraz ere izan: bideo-joko egile ikasketak (Digipen Bilbao, adibidez) euskaraz egin ahal izatea bultzatu. Ildo beretik, helduei eta, batez ere, haurrei zuzendutako bideo-jokoak programatzeko tailerrak euskaraz ere egin daitezten sustatu.

## **8. Euskaldunok gehien erabiltzen ditugun aplikazioak, CMSak eta sare sozialak, besteak beste, identifikatu eta itzuli**

Euskaldunok gehien erabiltzen ditugun aplikazioak identifikatzea garrantzitsua da, besteak beste, edukien sorkuntza eta administraziorako aplikazio eta frameworkak, informazio bilatzaile eta kudeatzaileak eta sare sozialak. Hauen artean oso erabiliak dira argazki errepositorioak (Flickr...); argazki, bideo eta jokoen muntaiak egiteko aplikazioak (Camtasia, Kazam, Vivavideo, Blender...); musika eta bideo kudeatzaileak (Spotify, Deezer, Mp3musicpro, Badok, Youtube...); ediziorako tresnak (LibreOffice, Microsoft Office, zuzentzaileak, hiztegiak, itzultzaileak ...); web aplikazioak sortzeko eta edukiak kudeatzeko sistemak (Joomla, Drupal, Zope, Wordpress, Moodle...) eta gizakien arteko komunikazioa ahalbidetzen dutenak (Skype, Whatsapp, Snapchat, Telegram, Instagram, Facebook, Tuenti, Twitter, Linkedin...), zeinetan ahots-testu bihurketa eta hitzen predikzioa asko erabiltzen den.

Horiek guztiak bi taldetan banatuko dira:





- ▶ Libreak (Moodle, Wordpress, Joomla, Zope, LibreOffice...).
- ▶ Jabedunak (Twitter, Google, Facebook, Sony, Samsung, Microsoft, Youtube, Nintendo...).

Edozein kasutan, honako hauek bereziki garrantzitsuak ikusten dira: Chrome eta Firefox bezalako informazio bilatzaileak, egunerokotasunean erabiltzen diren gailuen sistema eragileak, hots, Android, iOS, Windows eta OS X. Eta bestelako aplikazioak, adibidez, Google Apps.

### Zergatik sustatu?

Garai batean irрати eta telebista euskalduntzearen beharra izan genuen bezala, une honetan gailu elektronikoak euskaldundu beharrean gaude. Gaur egun, gizakiok, gehienbat Internet erabiltzen dugu informazioa eskuratzeko. Era berean, elkarren artean komunikatzeko teknologiak eskaintzen dizkigun tresnek telefonoa ordezkatu dute nolabait, erabilera horretan egiten dugun hizkuntz hautuak gure egunerokotasuneko komunikazio-hizkuntzan eragin zuzena izanik. Hortaz, gailu hauek erabiltzen dituzten aplikazioetako komunikazio-hizkuntzek zuzen-zuzenean eragiten dute gure eguneroko komunikazioan.

### Nola susta daiteke?

Ondorengoak dira euskaldunok gehien erabiltzen ditugun aplikazioak, CMSak eta sare sozialak, besteak beste, identifikatu eta itzultzeko egin ditzakegun ekimenak:

- ▶ Datuen bilketa egitean, gehien erabiltzen ditugun aplikazioak, CMSak, sare sozialak, etab. zeintzuk diren galdetu.





- ▶ Libreen kasuan, euskarazko lokalizazioa eta itzulpena ondo daudela ziurtatu eta eguneratuta mantendu.
- ▶ Jabedunen kasuan bitartekaritza lana egin. Hau da, haiekin hitz egin euskarazko itzulpena onar dezaten (Google, Microsoft, Apple, Mugikorren ekoizleak...) eta euskara ditzaten ahalbidetu, edota bidea erraztu (estilo liburu antzeko bat sortu itzulpen hauek egiteko, glosategi terminologikoak...).
- ▶ Euskaraz sortutako aplikazioak bultzatu eta babestu (Badok, Mitzuli...).

## 9. Zaintza teknologikoa ziurtatu

Merkatuan agertzen diren berrikuntza teknologiko arrakastatsuenak, IKT joerak eta tresna berriak identifikatzeko edota beste hizkuntza zein herrialde batzuetan hizkuntzaren sustapenerako IKT arloan egiten denaren jarraipena egiteko, zaintza teknologikoa ziurtatzea garrantzitsua da.

### Zergatik sustatu?

IKTak eta Internet egonkortzearekin batera, hainbat kezka sortu dira jendarte zein erakunde ezberdinetan alor sozial, kultural, politiko edota ekonomikoan. Zer esanik ez guri dagokigun euskara eta teknologia batzen dituen alorrean.

Espazio eta tresna berri hauek sortutako egoera ezezagun horri aurre egiteko, tokian tokiko gobernu, unibertsitate eta beste



eragileen arteko zaintza teknologikorako hainbat egitura sortu dira leku ezberdinetan, besteak beste, Argentina, Italia, Ingalaterra edota Katalunian.

IKTek sortutako errealitate berriak aztertzeko espazio horiek guztiak beharrezkoak dira gurean ere; izan ere, alde batetik, errealitate berria hobeto ulertzen lagunduko ligukete, eta, bestetik, eragile ezberdin eta anitzen artean erabaki egokiagoak hartzeko aukera emango ligukete, IKT eta Internet arloan. Halaber, euskaraz arlo honetan diskurtso eta praktika propioak garatzeko aukera ere emango ligukete.

### **Nola susta daiteke?**

- ▶ IKT eta Internet ikertegia sortu: azaldutako gaiak aztertuko dituen erakunde, akademia eta eragile ezberdinen artean osatutako ikertegiak abian ipini. Adibidez: IN3 egitasmoa [<http://in3.uoc.edu>]
- ▶ IKT eta Interneti buruzko euskarazko argitalpen eta komunitateak indartu: beste arlo batzuetan ematen diren laguntzak eman edota, euren izaera estrategikoagatik, horietan sartu. Adibidez: IFTF egitasmoa [<http://iftf.org>]
- ▶ Prospektibarako lan taldeak osatu: etorkizunari begirako gai hauen inguruko ikerketak egingo dituzten diziplina anitzeko lan taldeak osatu. Adibidez: LEAP egitasmoa [<http://www.leap2020.eu>]



## 10. Sarean euskara sustatzen ari diren ekimenak identifikatu eta bultzatu

Sarean euskara sustatzen ari diren ekimenak identifikatzea eta bultzatzea garrantzitsua da; izan ere, komunitate birtual hauek tresna edo programa informatikoen garapenean, hobekuntzan, mantenuan edota lokalizazioan parte hartzen dute, besteak beste.

Oso lagungarriak dira euskararen erabilpena bultzatzeko, eta baita euskararen ikusgarritasuna sustatzeko ere mundu mailako zaletasun bereko beste nazioarteko komunitateen aurrean.

Euskaraz era naturalean sortu eta lanean ari diren komunitateek euren egunerokotasunean euskararen erabilera sustatzeaz gain, laguntza handia eskaintzen dute besteok beharrezkoak ditugun tresnak euskaraz izan ditzagun. Horrela baino ez da posible izan euskaratzea munduan gehien erabiltzen den Wordpress eduki kudeaketa sistema edota Mozilla Firefox nabigatzailea.

### Zergatik sustatu?

Komunitate hauek baliabide gutxirekin emaitza handiak lortzen badituzte ere, erakundeen sostengua —nola errekonozimendu soziala, hala sostengu ekonomikoa— behar izaten dute askotan proiektuak epe luzean mantendu ahal izateko. Kategoria honetan sartzen dira softwarea itzultzen duten taldeak, tresnen lokalizazioan (tresnen itzulpena eta egokitzea) parte hartzen dutenak, azpitoluak edota edukiak sortzen dituzten komunitateak eta softwarearen alorrean euskarazko ekimenak aurrera ateratzen dituztenak, besteak beste.



Zentzu honetan, software eta eduki librearen arloan apustu estrategikoa egiten dutenak dira nabarmenenak, inbertsioen errentagarritasuna ziurtatzeaz gain, komertzialki errentagarriak ez diren eremuetara ere iristeko gaitasuna erakutsi dutelako. Horiei esker, beste era batera ezinezkoa litzateke, programa eta baliabide ugari euskaraz izateko aukera dugu.

### **Nola susta daiteke?**

- ▶ Komunitate hauei laguntza berezitua eman: errekonozimendua eman, baliabideak edo sostengu ekonomikoa eskaini diru laguntza espezifikoa edo ekimen zehatzen bidez. Adibidez, Librezale.eus, edo Code.org euskaratzeko ekimenak.
- ▶ Komunitate hauek biltzeko ekimenak bultzatu: komunitate hauek elkar ezagutu eta biltzeko ekimenak antolatu eta proiektu bateratuak egiteko erraztasunak eman. Adibidez: Durangoko Azokako Kabi@ edo FOSDEM.
- ▶ Komunitate hauen arteko harremana sustatu: komunitate hauekin harremana izan dezaketen erakunde bidez komunitate hauekiko harremana sustatu eta elkarlanean proiektuak landu ditzaten sustatu. Adibidez, Azkue fundazioa edo Tabakalerako Hirikilabs.

## **11. Publikoa den edukia sareratu eta lizentzia libreakin ipintzea sustatu**

Publikoa den edukia sareratzeko ezinbestekoa da erabiltzaileek euskarazko edukia kontsumitu ahal izateko. Helburua erabiltzaile



euskaldunok edukiak euskaraz kontsumitzea izan beharko litzateke. Horretarako, ezinbestekoa da eduki interesgarriak denon eskura ipintzea. Eduki publikoak sareratzea aurrera pauso nabarmena izan daiteke norabide horretan. Horretaz gain, eduki horiek lizentzia libreekin sareratzea garrantzitsua da.

### **Zergatik sustatu?**

Arestian aipatu dugun legez, IKTen eraginez eta mundu mailan gertatzen ari den eraldaketaren eskutik, azken urteetan euskal sortzaileek lizentzia libreak gero eta gehiago erabiltzen dituzte. Enpresa eta egile bakoitzak bere arrazoiak baditu ere, euskal erakunde publikoek copylefta bultzatu beharko lukete euskararen normalkuntzan lagungarria delako. Baina ez hori bakarrik. Erabiltzaileentzat interesgarria eta erabilgarria izan daitekeen eduki publikoa sareratzea euskararen normalkuntzan urrats garrantzitsua izan daiteke. Horretarako, eduki publikoaren inbentarioa egin eta, ahal den neurrian, eduki hori denon eskura ipintzeko saiakera egin beharko litzateke. Baita eduki horiei lizentzia libreak ipintzeko ere.

### **Nola susta daiteke?**

- ▶ Publikoa den eta euskaraz dagoen edukiaren inbentarioa egin (ikus-entzunezkoak, aldizkariak, entziklopediak, tesiak...) eta eduki hori sareratzeko nahiz lizentzia libreekin ipintzeko aukerak aztertu. Eduki horiek sareratzeko lehentasunak ezarri, besteak beste, irismena kontuan izanik.
- ▶ ETB 1eko edukiek lizentzia librea izan dezaten sustatu, edonork erabiltzeko moduan ipiniz (BBC eredutzat har daiteke).



- ▶ ETBko «Nahieran» dagoen edukiari «aurkibidea» ipini, erabiltzaileek errazago topa dezaten. Beste telebista batzuetako eduki librea (Goiena...) «Nahieran» integratzea sustatu.
- ▶ Diruz laguntzen diren edukiak libre izan daitezzen eta denon eskura ipin daitezzen bultzatu.
- ▶ Googlerekin, besteak beste, etengabeko harremana ahalbidetu eta sareratutako eduki publikoaren berri eman (ahotsa, ikus-entzunezkoak, testua...). Zenbat eta eduki gehiago indexatu euskaraz, orduan eta hobeto garatuko dituzte euren produktuak euskaraz ere erabili ahal izateko.
- ▶ Euskal bideoteka edo mediateka sortu eta bertan dokumentalak, filmak, serieak, etab. ipini, edonork kontsulta eta erabil ditzan.

## 12. Hizkuntza-teknologiak garatzen lagundu eta berriazko plana garatu

Garrantzitsua da euskarazko hizkuntza-teknologiaren garapena eta zabalkundea sustatzea berriazko plan baten bitartez. Hizkuntza-teknologiaren esparruan, besteak beste, ondokoak koka ditzakegu: hizketaren ulermena, hizketaren sintesia, ulermen semantikoa, adimen artifiziala, itzulpen automatikoa, galderak erantzuteko sistemak, analizatzaile morfosintaktikoak, lematizatzaileak, zuzentzaileak, gramatika konputazionalak, corpusak, informazio bilaketako tresnak, informazio erauzketa, sentimenduen analisia, hiztegi elektronikoak eta hizkuntzen irakaskuntzarako teknologiak.



## Zergatik sustatu?

IKT eta Interneten garapenari esker, gero eta informazio gehiago dugu eskura, testu nahiz ahots formatuan. Dena den, datuak erraz prozesatzen dituzten sistema informatikoez ezin dute oraindik gizakion hizkuntza zuzenean prozesatu. Hizkuntza-teknologiek, metodo zientifiko bidez, hizkuntza ezberdinak ulertzen laguntzen dute. Gauzak horrela, informazio bilaketako tresnak, zuzentzaileak, itzulpen automatikoa, etab. ezinbesteko bihurtu dira edozein hizkuntzaren egunerokoa eta baita erabiltzaileari zerbitzu aurreratu eta prozesu anitzen optimizazioa eskaintzeko orduan ere.

la oharkabea, beraz, hizkuntza-teknologiak gure eguneroko bizitzan txertatu zaizkigu. Horietako batzuk, aurreratuen daudenak, erabilera orokorrekoak bihurtu dira (hiztegi elektronikoak, zuzentzaileak...); beste batzuk, hain aurreratuak egon ez arren, gero eta gehiago ikusten eta erabiltzen dira (ahots bidezko aginduak, testuen itzulpen automatikoa, asistente birtualak...); eta beste batzuek, fase esperimentalagoan, etorkizunean izan dezaketen ahalmena eta erabilera posibleak erakusten dizkigute (ahots-ahots itzulpen automatikoa, adibidez). Zalantzarik gabe hauek guztiak gero eta gehiago erabiliko ditugu.

Teknologia hauetako asko, baina, ez daude euskararako; daudenetan ere, sarritan, ez dira iristen ingelesa edo gaztelaniazko antzeko tresnen mailara; iristen direnetan ere, askotan ez daude eskuragarri ohituraz erabiltzen ditugun gailuetan; eta dauden kasuetan ere, maiz ez ditugu baliatzen, defektuz ez datozelako, aukera dagoela jakin ere ez dakigulako edo instalatzeko edo ezarpenak aldatzeko lana hartu ez dugulako. Honek guztiak arrisku bat dakar: jendeak euskara baztertu eta beste hizkuntza batzuetara jotzea tresna eta gailu gero eta ugariago horiek





erabiltzean, euskaraz ez daudelako edo ez dabiltzalako besteetan bezain ongi.

Horregatik, garrantzitsua da euskarazko hizkuntza- eta ahots-teknologiak garatzen laguntzea eta, horrez gain, tresna eta gailu ohikoenetan teknologia horiek eskuragarri egon daitezen bultzatzea eta beraien zabalkundea egitea. Erabilera anitzeko gailuez gain, sektore espezifikoetarako erabilera oso interesgarriak ere badituzte hizkuntza-teknologiek.

## Nola susta daiteke?

- ▶ Euskarazko hizkuntza-teknologiak bultzatzeko berariazko plana garatu, Espainiako Gobernuak egin duen *Plan de Impulso de las Tecnologías del Lenguaje* osatzera etorriko litzatekeena. Plan horrek euskarazko hizkuntza-teknologiaren garapenean lagunduko luke. Hau da, hizketaren ulermena, hizketaren sintesia, ulermen semantikoa, adimen artifiziala, itzulpen automatikoa, galderak erantzuteko sistemak, analizatzaile morfosintaktikoak, lematizatzaileak, zuzentzaileak, gramatika konputazionalak, corpusak, informazio bilaketako tresnak, informazio erazketa, sentimenduen analisia, hiztegi elektronikoak, hizkuntzen irakaskuntzarako teknologiak... moduko teknologiaren garapenean lagunduko luke.
- ▶ «Compra pública innovadora» delakoa bezalako tresnen bidez administrazioak hizkuntza- eta ahots-teknologiak kontsumitzea bultzatu.
- ▶ Euskarazko hizkuntza-teknologiak software eta gailu ohikoenetan egotea bultzatu: zuzentzaileak, hiztegiak eta horrelakoak ofimatika produktuetan, nabigatzaileetan, edizio-tresnetan eta horrelakoen bertsio berrienetan egotea sustatu.



Euskarazko zuzentzaileak, bilatzaileak, itzulpen automatikoa, ahots-sintesia, hizketaren ulermena eta horrelakoak ordenagailuetako sistema eragileetan, telefonoetan eta abarretan eskuragarri egoteko ekoizleekin bitartekaritza lana egin.

- ▶ Euskarazko hizkuntza-teknologiengatik zabalkundea bultzatu: euskaraz dauden hizkuntza-teknologiengatik inguruko kanpaina eta gida landu, erabiltzaileek ezagutu ditzaten, nola instalatu edo konfiguratu jakin dezaten eta nola erabiltzen diren ikas dezaten.



# 6

## LEHENTASUN, EGINGARRITASUN ETA ERAGINKORTASUNAREN BAITAKO SAILKAPENA

Azken urteetan, IKTen eremuan eta Interneten ahalegin handia egin da euskararen presentzia areagotzeko: urrats handi bezain garrantzitsuak eman dira norabide horretan, arestian aipatu den legez. Hala ere, agerikoa da etengabe lanean jarraitzea ezinbestekoa dela, hizkuntza hegemonikoen mehatxuari aurre egiteko. Eraitza positiboak lortze aldera, alor guztietan eragitea eta eragile guztien ahaleginak bateratzea behar-beharrezkoa da. Komunitatea eta Administrazioa elkarrekin jardutea ez da, beraz, aukerakoa.

Alor guztietan eragitea, baina, ez da erraza gurea bezalako komunitate txiki batean. Ahaleginak ondo neurtu behar dira eta, hortaz, garrantzitsua da indarrak bereziki non ipini behar diren identifikatzea. Horren haritik, IKT Batzorde-atalean ariketa bikoitza egin da. Alde batetik, hirurogei egitekoen zerrenda mugatu egin da, hamabi lehentasun hautatuz. Bestetik, hamabi lehentasun horiek aurrera eramateko proposamen ezberdinak aztertu dira eta haien lehentasunaren, egingarritasunaren eta eraginkortasunaren baitako azken mugatze ariketa bat egiteko saiakera egin da. Puntu batzuk bere horretan uztea erabaki da ekimen zehatzik hobetsi gabe, proposamen ezberdinak aldi berean egin daitezkeela pentsatu delako.



Hauek lirateke, beraz, IKT Batzorde-atalaren iritziz, une honetan lehenetsi beharreko ekimenak:

1. Euskarazko Wikipedia sustatu.
  - a. Unibertsitate, GLAM (galeriak, liburutegiak, artxiboak eta museoak) eta Wikipediaren arteko lankidetzak aukerak aztertu.
  - b. Wikilari egoiliarak sustatu.
  - c. Unitate didaktiko bat sortu irakasleek eta ikasleek Wikipedia eta Vikidia ezagutu eta ekarpenak egiten ikasteko.
  - d. Euskal Wikipediaren edizio topaketak eta maratoiak antolatu.
2. Estrategikoak diren enprekin etengabeko harremana eta elkarlanerako bideak sustatu.
  - a. SPRIren nazioarteko delegaritzen eredu jarraitu: euskal eragileen eta Interneteko eragile pribatu nagusien arteko harremanak errazte aldera, ordezkariak izendatu enpresa hauetan eta baita Eusko Jaurlaritzan ere (agian, SPRIren bitartez egin zitekeen bitartekaritza lana). Protokolo bat zehaztu.
  - b. Saio mugatu bat egin eragile nagusi horietako bat edo birekin, Google eta Facebookekin, esaterako. «Kontaktua Sarearen» hastapena mugatua bada, errazago antola daiteke beharbada.
  - c. PuntuEUS Fundazioarekin harremanetan ipini: PuntuEUS Fundazioak .EUS domeinuaren garapena indartze aldera eta euskarak Interneten duen presentzia sustatzeko asmoz, hainbat bilera egin ditu azken urteotan IKT



alorreko enpresa handiekin (Google, Twitter, Tucows, Amazon eta ICANNekin). Interesgarria izan daiteke ezagutza horiek baliatzeko aukerak aztertzea.

3. Eduki propioak sortu eta etengabe edo maiz berritzen diren kontuan izan diru-laguntzak ematean.
  - a. Proiektuek ekoizten duten edukia kontabilizatu.
  - b. Sare sozialetan duten irismena aintzat hartu.
4. Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaz sortutako edukien Copyleft politika arautu, lizentzia libreak bultzatuz.
  - a. Proiektuetarako sortzen diren lan guztiak, euskaraz egon ala ez, lizentzia libreekin argitara daitezen sustatu. Hau lortzeko, diru-laguntzen onarpen baldintzetan lizentzia libreak erabiltzen dituzten ekimenak lehenetsiko direla ezar daiteke.
  - b. Aurretik lizentzia libredun lanak argitaratu dituzten eskatzaileen proiektuak lehenetsiko direla ezar daiteke.
  - c. Sustatzeaz eta lehenesteaz haratago, diruz laguntzen diren proiektuen sarreren % 50a edo gehiago diru publikoa den proiektuetan sortzen diren edukiek ezinbestean lizentzia libreak izan behar dituztela arautu daiteke, proiektuak eginezinak bihurtu litezkeen kasu berezietan salbuespenak ezarriz.
  - d. GPL lizentzia eta Creative Commons lizentziak euskaraturik badaude ere, azken bertsioak ez. Beraz, komeniko litzateke Eusko Jaurlaritzak dituen baliabideekin euskararen eta zuzenbidearen ikuspuntutik bertsio hauen eta ondorengo kalitatezko itzulpenak eta lokalizazioak bermatzea. Kontuan izan behar da itzulpenak eguneratuta izateaz gain, ezinbestekoa dela legislazioaren gaineko



bertsioak egokitzea. Horrela, diru-laguntza publikoen esparruan ez ezik, dagoeneko lizentzia hauek erabiltzen dituzten euskal norbanako, enpresa eta erakundeek ere erosotasun handiagoz eta, agian, baita maiztasun handiagoz ere erabiliko lituzkete.

**5.** Euskarazko IKTen inguruko datuak lortu (erabilera, sartzea, diruz laguntzen diren proiektuen arrakasta...).

- a. Neurketa estandar bat diseinatu, «Piwik» neurgailuaren antzeko bat egokituz, adibidez, eta hura erabiltzea eskatu. Arestian aipatu da mota honetako neurgailu batekin lor daitezkeen onurak.
- b. Adierazle sistema orokorrean datuak lortzeko indikadoreak sartu.
- c. Aginte taula sinple eta eraginkor bat osatu ekimen ezberdinak barnebilduko dituen.

**6.** Ikus-entzunezkoen alorrean eragin.

- a. Euskaraz diharduten telebistetako edukiek lizentzia librea izan dezaten sustatu, edonork erabiltzeko moduan ipiniz.
- b. Gazteengan pentsatutako ikus-entzunezkoak sarean egon daitezen ekimenak babestu. Gazteak euskaraz sor dezaten bultzatu (lehiaketak, youtuberrak...)

**7.** Bideo-jokoen alorrean eragin.

- a. Euskaraz arituko diren *gamerak* eta *gameplayak* sustatu: euskaraz arituko diren *gamerak* (bideo-jokoen partiden bideoak grabatu eta Internetera igotzen dituzten erabiltzaileak) eta *gameplayak* (partiden bideoak) euskaraz sustatu. Gamerauntsia gisako komunitateei



lagundu; izan ere, garrantzitsua da komunitate eta sorkuntza propioan eragitea eta erreferente euskaldunak izatea.

- b. Bideo-jokoak egiteko trebakuntza euskaraz ere egon dadin bultzatu: bideo-joko egile ikasketak (Digipen Bilbao, adibidez) euskaraz egin ahal izatea bultzatu. Ildo beretik, helduei eta, batez ere, haurrei zuzendutako bideo-jokoak programatzeko tailerrak euskaraz ere egin daitezten sustatu.

**8.** Euskaldunok gehien erabiltzen ditugun aplikazioak, CMSak, sare sozialak eta bestelakoak identifikatu.

- a. Datuen bilketa egitean, gehien erabiltzen ditugun aplikazioak, CMSak, sare sozialak, etab. zeintzuk diren galdetu.
- b. Aplikazio libreen kasuan, euskarazko lokalizazioa eta itzulpena ondo daudela ziurtatu eta eguneratuta mantendu.

**9.** Zaintza teknologikoa ziurtatu.

- a. IKT eta Internet ikertegia, behatokia edota mahaia sortu: azaldutako gaiak aztertuko dituen erakunde, akademia eta eragile ezberdinen artean osatutako lan edota ikerketa dinamikak abian ipiniz. Adibidez: IN3 egitasmoa [<http://in3.uoc.edu>]

**10.** Sarean euskara sustatzen ari diren ekimenak identifikatu eta bultzatu.

- a. Komunitate hauei laguntza berezitua eman: erreko-nozimendua eman, baliabideak edo sostengu ekonomikoa eskaini diru laguntza espezifiko edo ekimen zehatzen



bidez. Adibidez, Librezele.eus, edo Code.org euskaratzeko ekimenak.

- b. Komunitate hauen arteko harremana sustatu: komunitate hauekin harremana izan dezaketen erakundeen bidez komunitate hauekiko harremana sustatu eta elkarlanean proiektuak landu ditzaten sustatu. Adibidez, Azkue fundazioa edo Tabakalerako Hirikilabs.

11. Publikoa den edukia sareratu eta lizentzia libreekin ipintzea sustatu.

- a. ETB 1eko edukiek lizentzia librea izan dezaten sustatu, edonork erabiltzeko moduan ipiniz (BBC eredutzat har daiteke).
- b. ETBko «Nahieran» dagoen edukiori «aurkibidea» ipini, erabiltzaileek errazago topa dezaten eta euskaraz jarduten duten beste telebista batzuetako eduki librea (Goiena...) bertan integratzea sustatu.

12. Hizkuntza-teknologiak garatzen lagundu eta berariazko plana garatu.

- a. Euskarazko hizkuntza-teknologiak bultzatzeko berariazko plana garatu, Espainiako Gobernuak egin duen *Plan de Impulso de las Tecnologías del Lenguaje* osatzera etorriko litzatekeena. Plan horrek euskarazko hizkuntza-teknologiaren garapenerako bide-orria diseinatzen lagunduko luke.





# LANERAKO ABIAPUNTUKO DOKUMENTUA\*

Jarraian, Interneten eta Informazio eta Komunikazio Teknologiesen euskararen presentzia sustatzeko proposamen eta egitekoen zerrenda luze bat topatuko duzu, zirriborro gisa aurkeztua. IKT Batzorde-atalak ondorengoak aztertu, lehenetsi, zeregin zehatzak proposatu eta horiek nola gauzatu erabaki beharko luke.

Zerrenda 4 ataletan banatua dago:

1. Euskararen IKTen egoeraren inguruko datuak bildu.
2. Euskarazko edukiak sustatu (baita euskara ikasteko edukiak ere).
3. Euskarazko tresnak sortu eta sustatu.
4. Euskarazko IKTen bisibilitatea/promozioa eta .eus garapena sustatu.
  - a. Garapena eta promozioa sustatu
  - b. Diru-laguntzen deialdia hobetzeko proposamenak aztertu
  - c. Aspektu normatiboa kontuan izan

---

(\*) Eranskin honetan jaso da 2015eko ekainaren 17an izandako bileran IKT Batzorde-ataleko kideen esku jarri zen lanerako abiapuntuko dokumentua.



## 1. Euskararen IKTen egoeraren inguruko datuak bildu

- ▶ Datuak behar dira (penetrazioa, erabilera...). Euskararen IKTen egoeraren inguruko datu eguneratuak izateko bilketa sistematizatu eta hori euskararen adierazle sisteman integratu.
- ▶ Euskara eta IKTen arteko lotura landuko duen estatistika lerro iraunkor bat martxan jartzea (Eustat-ekin?).
- ▶ Azterlanak bultzatzea: euskarazko tresnen presentzia, erabilera eta posizionamendua neurtzeko.
- ▶ Ikerketa ahalbidetu. EHko joerak aztertu (kontsumitzen diren edukiak, adin tarteak, gailuak, programak, aplikazioak, sare sozialak...). Aukera bat: Ikerketa zentru bat.
- ▶ Zaintza teknologikoa ziurtatu: Merkatuan agertzen diren berrikuntza arrakastatsuenak identifikatu, beste hizkuntza/herrialde batzuetan egiten denaren jarraipena egin, IKT joerak eta tresna berriak identifikatu...
- ▶ Sarean euskara sustatzen ari diren ekimenak identifikatu.
- ▶ IKT inbentarioa etengabe eguneratzea. Euskarazko software katalogo bateratu eta eguneratua: Webgune neutroa izan behar luke, euskarazko software katalogoa bilduko duena, osoa eta eguneratua (EJ-k eta UEU-k badute katalogo bana, baina modu bateratuan eta webgune neutro batean biltzea proposatzen da). Horretarako, beharrezkoa izango da eragile ezberdinen arteko elkarlana abiapuntua izatea, orain arteko atomizazioa gaindituz eta modu koordinatuan lan eginez.
- ▶ Sarean informazio gune iraunkorra eguneratuta mantentzea.
- ▶ Euskaldunok gehien erabiltzen ditugun aplikazioak, CMSak, sare sozialak... identifikatu. Horiek bi taldetan banatuko dira:



- Eduki libreak direnak eta jabedunak. Libreak direnetan (Moodle, Wordpress, Joomla, Drupal, Zope...) ziurtatu behar da, alde batetik, euskarazko lokalizazioa, itzulpena, ondo dagoela eta, bestetik, eguneraketa.
  - Jabedunetan (Tuenti, Twitter, Google, Facebook...) bi lan egin behar dira. Batetik, bitartekaritza lana, hau da, haiekin hitz egin euskarazko itzulpena onar dezaten (Twitter, Google...); eta, bestetik, nik ez nuke diru publikoarekin hauen euskaratzea bultzatuko, bidea erraztuko nuke erabiltzaileek tresna hauek identifikatu eta euskara ditzaten modu errazean (estilo liburu antzeko zerbait sortu itzulpen hauek egiteko).
- ▶ Identifikatu beharko lirateke zein programa profesional erabiltzen dituzten gehien EAeko enpresek eta autonomoek eta horiek lokalizatzeko ahalegina egin beharko litzateke.
  - ▶ Euskadi mailan dauden komunitate birtualak identifikatzea eta bultzatzea: tresna edo programa informatikoen garapenean hartzen dute parte; oso lagungarriak dira euskararen erabilpena bultzatzeko; eta euskararen ikusgarritasuna bultzatzen dute mundu mailako zaletasun berdineko beste nazioarteko komunitateen aurrean.
  - ▶ Detektatu zeintzuk diren hutsune nagusienak eta horiek ENKARGUZ egin (urte batzuetarako akordioetara iritsi) eta ez alderantziz: proposatzen dira gai solteak, beharrak sortzen dira (askotan hutsuneak ez dauden tokietan eta horiek diruz laguntzen dira). Noski, sormenerako eta ideia berrietarako tartea utziz.



## 2. INTERNETen euskarazko edukiak sustatu (baita euskara ikasteko edukiak ere).

- ▶ Lagundu beharreko edukiak lehenetsi, aurreko datu-bilketan oinarrituta. Bitartean, garbi ikusten diren alorrak sustatu (Wikipedia...).
- ▶ Gazteei begira kontsumo masiboko edukiak sustatu (YouTuben eta haiek erabiltzen dituzten beste kanal eta sare sozialetan).
- ▶ Aisialdirako sareko euskarazko edukiak gehitzea.
- ▶ Bideo-jokoen alorrean eragitea, euskarazko produktuak ere ekoiztu eta hedatu daitezen.
- ▶ Ikus-entzunezko alorrean eragitea, euskarazko produktuak ere ekoiztu eta hedatu daitezen. Dauden zentru (Andoain), unibertsitate (MU, UPV-EHU, Deustu...), espazio (Tabakalera, Alhondiga) eta sortzaile taldeekin harremana sustatzea.
- ▶ IK Tetan eta sarean euskararen erabilerari bultzada emango dioten berrikuntzak propio asmatu eta garatzea sustatzea.
- ▶ Merkatuan agertzen diren berrikuntza arrakastatsuenak ahalik eta azkarren lokalizatzea euskarara.
- ▶ Euskal Wikipedia sustatu:
  - EW sustatzea edukiak txertatuz; EWren kokapena aprobetxatzea euskarazko edukietarako sarbide gisa, EWn erreferentzia eta lotura egokiz elikatzea, ikastetxeetan eta unibertsitateetan EWraiko artikulak sortu eta itzultzea, EWn edukiak txertatzeko lankidetzak sustatzea (zientzia, teknologia, literatura...).
  - Euskal Wikipedia lagundu beharko litzateke; horretarako, jabea duten eduki asko libratu beharko lirateke, gutxienez erakunde publikoek sortu eta



finantzatu dituztenak (hiru.com, beste euskal entziklopediak, testu-liburuak...), Wikibertsitatean sartzeko.

- Wikipedia: Ikastetxeetan Wikipediako artikuluak sortu, hobetu edota itzultzeko egitasmoa abian ipini. Proposamen bat HPSren esku dago.
- ▶ Aplikazioak euskarara lokalizatzea.
- ▶ Sektore estrategikoetan (Osakidetza, garraioa, arreta zerbitzuak, liburutegiak...) euskarazko zerbitzuak ahalbidetuko dituzten aplikazioak bultzatu. Mota askotako aplikazioak dira egiteko, baina oinarrizko teknologiak berdinak dira: zuzenbidea, biomedikuntza, telebista, etab. Hori ere tresna eta baliabideekin eta corpusekin batera antolatu behar da. Erreferentzia: [www.h5technologies.com](http://www.h5technologies.com)
- ▶ Identifikatu beharko lirateke zein programa profesional erabiltzen dituzten gehien EAeko enpresek eta autonomoek eta horiek lokalizatzeke ahalegina egin beharko litzateke, esate baterako, kontabilitate-programak edo stocka kontrolatzeko programak, TPV programak, sozietate gastronomikoen kudeaketakoak, itzultzaileentzako IMak kudeatzekoak eta antzekoak. Alor honetan administrazio publikoak ere bere burua aztertu beharko luke.
- ▶ Euskara ikasteko bide berriak urratu: Duolingo bezalako aplikazio arrakastatsuetan euskara ikasteko edukiak ipintzea bultzatu, euskara ikasteko MOOC-en (Massive Open Online Courses) bat sortzearen aukera aztertzea...
- ▶ Sortzen diren edukien formatua estandarra eta semantikoa dela eta lizentzia librea dutela bermatu.
- ▶ LinkedData.org proiektuan txertatu euskarazko edukiak: Opendata-rekin egiten ari direna, baina euskarazko edukiekin. Adibidez, Wikipediako eduki guztiak RDF



bezalako formatu estandar eta semantikoan ipini, lizentzia librearekin.

- ▶ Euskarazko corpus orokor historikoa eta egungoa ezinbestekoa dira: testu eta ahots-corpusa. Corpus horiek gainera irizpide eta erabilera unibertsala behar dute izan. Gainera, alorkako corpusak ere bultzatu behar dira. Jaurlaritza bultzatzen ari den Itzulpen Memorien Banku Publikoa alor horretako baliabideetako bat da. Era berean, itzulpen-memoria handiak dituzten erakundeek (adibidez, aurrezki kutxek) beren memoriak corpus moduan jar ditzaten sustatu behar da. Eroskiren corpus eleanitza jarraitu beharreko bide bat da; landu, kontsultagai jarri eta Euskaltzaindiaren esku utzi du.
- ▶ Proposamen berriak egitea.

### 3. Euskarazko tresnak sortu eta sustatu.

- ▶ Erabilera gero eta handiagoa duten gailu teknologiko berrietara egokitutako aisialdi aplikazioak sortzen laguntzea.
- ▶ Euskarazko tresnak sortzen direla bermatu eta bultzatzea.
- ▶ Hiztegi elektronikoak, hiztegien pluginak, corpusak, hiztegi entziklopedikoak, itzulpengintzari laguntzeko tresnak, itzultzaile automatikoa eta bestelako tresnak sarean erabiltzaileen eskura jartzen jarraitzea.
- ▶ Itzulpen automatikorako tresnak sortzea eta garatzea.
- ▶ Euskarazko zuzentzaile ortografikoak etengabe hobetu eta softwareen bertsio berrietara egokitzea sustatzea, ofimatika produktuetan, nabigatzaileetan, edizio-tresnetan eta gainerakoetan.
- ▶ Euskara ikasteko tresna berriak sarean ipintzea.



- ▶ Administrazio publikoetan informatikako tresnak euskaraz konfiguratu beharko lirateke (Interneteko nabigatzaileak). HAKOBAK gai hau aztertu beharko luke. Administrazioko euskara-planak ere testuinguru egokia izan daitezke.
- ▶ Hizkuntz teknologiak garatzen lagundu (ahots ulermena, ahots sintesia, ulermen semantikoa, adimen artifiziala, itzulpen automatikoa, galderak erantzuteko sistemak, analizatzaile morfosintaktikoak, lematizatzailea, gramatika konputazionalak, corpusak, etab...). [ikus Microsoftek eta Skypek atera berri duten aldibereko itzulpen sistema: <https://www.youtube.com/watch?v=JgttPiMgoS4>]. UPV/EHUn badira alderdi hau lantzen dabiltzan ikerketa-taldeak. Egin ere, egin dira gai honi loturiko doktorego-tesiak. Jaurlaritza harremanetan ipini talde horiekin.
- ▶ Garatzen diren tresnetan, software librearen aldeko apustu estrategikoa egitea.

#### 4. Euskarazko IKTen bisibilitatea/promozioa eta .eus garapena sustatu.

##### a Garapena eta promozioa sustatu

- ▶ Hizkuntzen industria indartzeko egitasmoak bultzatzea.
- ▶ Estrategikoak diren enprekin etengabeko harremana/elkarrizketa/akordioak. Euskarak presentzia izan dezan mugikor eta web esparruan, aktore nagusi batzuekin kanalak irekita izatea komeni da: Google, Twitter, Facebook, Apple, Samsung, Netflix (?), Amazon, Mozilla, Microsoft... Kontakutuek horiek partekatuak izan behar dira eragile teknologikoekin.



- ▶ Gure edukia *Googleren* eskura jarri eta, nolabait esatearren, *Googlei* begira egin behar dugu lan (hau da, *Googlei* edukia eman). Horretarako:
  - Publikoa den eduki guztia sareratu.
  - Bereziki inportantea EITBren edukia. Publikoa eta librea izan dadin legedia aldatzea eragin. BBC eredia.
- ▶ Komunikazioa bultzatzeko gizarte sare birtual uskaldunak sustatzea.
- ▶ Euskarazko pertsona ezagun eta erreferenteak direnak sare sozialetan (Twitter...) euskaraz parte har dezaten lagundu.
- ▶ Sare sozialetan euskararen presentzia areagotzeko bideak erraztea.
- ▶ Interneteko eragile pribatu nagusiekin elkarlanerako bideak jorratzea.
- ▶ PuntuEUSen garapena (administrazioan, ikaste-txeetan...).
- ▶ IKT oinarrizko aplikazioak euskaraz erabiltzeko kanpaina eta gida landu behar dira. Kontzientziazio-kanpaina izateaz gain, aplikazio hauen implementazioarako gida zehatza prestatzea ere interesgarria izan daiteke, hau da, euskaraz zein aplikazio dauden eta hauek nondik eta nola instalatu behar diren azaltzen duen gida, euskarri anitzetan. Adibidez:
  - Sistema eragileak euskaraz: Windows edo Linux.
  - Ofimatika pakete arruntak: OpenOffice.org edo Microsoft Office.
  - Zuzentzaile ortografikoak instalatzeko pausoak eta nondik norakoak.
  - Nabigatzailea euskaraz jartzeko bideak: Firefox edo Explorer.





- Interesgarri ikusten diren beste hainbat.
- ▶ Teknologia berrikuntza eta esperimentazioa euskararekin lotu: laborategi teknologikoak edota Kzgunek bezalako azpiegituretan euskara berrikuntza eta esperimentazioarekin lotu. Bereziki gazteei begira litzateke interesgarria, baina baita beste adinetako jendeari begira ere. Era naturalean leku horiek euskararen erabilerarekin lotzea garrantzitsua izan liteke.
- ▶ Egindako ekimenen bateratzea.
- ▶ Euskal eduki sortzaile komunitatea dinamizatu, adimen kolektiboa mobilizatzeko ekimenak martxan jarri: alor ezberdinetako edukiak sortuko dituzten blogak... sustatu.

### **b** Diru-laguntzen deialdia hobetzeko proposamenak aztertu

- ▶ Irizpideak markatu/zehaztu/aztertu/berraztertu.
- ▶ Kudeatu eta betetze maila ziurtatu (jarraipena egin).
- ▶ Irismen maila kontuan izan dirua banatzerakoan (altu puntuatu). Neurketa sistema bateratua (neurgailu bat hautatu beza Jaurlaritzak).
- ▶ Eskatzaileek kanpoko kontu auditoretza bat eginda izatea (gardena litzateke).
- ▶ Berritzea eta edukiak sortzea. Nahikoa da eduki bat kargatu eta berritzea asteen behin? edo gehiago puntuatu beharko lirateke gehiagotan berritzen dutenak? Eta idatzizkoek gain ikus-entzunezkoak erabiltzen dituztenak? Eta testu originalak erabiltzen dituztenak? Eta ikus-entzunezko originalak? Robotak vs sorkuntza (erabiltzaile gehiagorekin puntu gehiago). Sorkuntza asko, puntu asko.



- ▶ Lizentzia libreak bultzatu: adibidez, diruz-lagundutako ekimenetan CC lizentziak eskatu.
- ▶ Copyleft politika arautu EJren diru-laguntzaz sortutako edukientzat. Diru-laguntza publikoak esleitu behar diren guztietan —edo ahal den guztietan, behinik behin—, zehaztu beharko litzateke zein lizentziarekin utzi beharko litzatekeen sortzen den eduki berria, garatzen den softwarea edo dena delakoa, denon diruarekin sortutako ondasun horien onuradunak denok izan gaitzen, eta eduki horiek berrerabili ahal izan daitezten... Edukiak berrerabili ahal izateak gero eta eduki gehiago sortzera eramango du jendea.
- ▶ Diruz laguntzen diren egitasmo eta eduki guztiak sarean ipini beharko lirateke, denon eskura.
- ▶ Software eta kultura euskaldun librearen aldeko apustua egin, baita honetan lan egiten duten komunitateekiko diskriminazio positiboaren alde ere. Hau da, proiektu bat bultzatzerakoan, kontuan hartu lehendik proiektu horretan lanean diharduten komunitateak (Wikipedia, librezale.org...).

### **C** Aspektu normatiboa kontuan izan

- ▶ Aipatutakoak lege bidez estrategikoak diren beste arloetara (hezkuntza, administrazioa...) eraman, hala dagokionean.

## TXOSTENEAN ERABILITAKO IRUDIAK

### PIXABAY [CCo Public Domain]

- 44. or: <https://pixabay.com/es/gr%C3%A1fico-gr%C3%A1fico-circular-negocio-963016/>
- 46. or: <https://pixabay.com/es/mp5-jugador-moviem%C3%BAsica-sonido-1015964/>
- 51. or: <https://pixabay.com/es/firefox-explorador-logotipo-fox-24921/>

### WIKIIMEDIA COMMONS [Wikipedia, CC BY-SA 3.0 (<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0>)] via Wikimedia Commons

- 27. or: Euskarazko Wikipedia, by Wikimedia Foundation (Wikimedia Foundation) [<https://commons.wikimedia.org/wiki/File%3AWikipedia-logo-v2-eu.svg>]

